



HANGOAK HEMENGO

Jatorri aniztasuna arazo bezala ikustetik aberastasun gisa ulertzera arteko bidea jorratu nahi du Elkar-ekinek 20

Zertan inbertitu
500.000 euro

Kudeaketa publikoa egiteko
beste modu bat UROLA ERDIAN

herritarrekin

Egin zure proposamenak

www.aurrekontuahobetzen.net webgunean
eta parte hartu herriko tailerretan

Maiatzaren 8an, 18:30ean, Azpeitiko udaletxean
Maiatzaren 22an, 18:30ean, Urrestillako jubilatuen elkarte

Antolatzailea



Laguntzaileak



ETORRI ETA
PARTE HARTU!

URBISTONDO MARGOAK



Eta zuk, margotu ala dekoratu?
Edozein kolore, edozein azalera
Kolore guztiak berehala prest!



MONTÖ
mix system



URBISTONDO MARGOAK
Salbe auzunea 35 - 20730 Azpeitia
TEL. 943815781
urbistondomargoak@euskalnet.net



SAMSUNG GALAXY TAB 3 T3100 16GB 8"
Elegantzia eskuetan
239€



SAMSUNG GALAXY TAB 3 T110N LITE 7"
Etxeko txiki eta handientzako
159€



SAMSUNG GALAXY TAB 3 8GB 8" 3G T3110
Mugikortasuna
327€



SAMSUNG GALAXY TAB 3 7" 8GB 3G T111N
Mugikortasuna prezio onenean
247€



Eguneratu zaitetz!!!

SAMSUNG GALAXY TAB 3 16GB 10" P5210
Mugikortasuna eta azkartasuna zure eskuan
369€

TABLETEN KONFIGURAZIOAZ GAIN, EHUNDAKA ERREFERENTZIA DITUGU PREZIO ONENEAN



Xabier Munibe 11
Julio Urkixo 16
Tel: 943 851 897
Azkoitia

MILAR
LARRAMENDI

uztarria

Argitaratzailea. Uztarrria

Komunikazio Taldea. Azpeitia

Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea, (Azpeitia, 20730)

Telefonoa eta faxa. 943 15 03 58

Posta elektronikoa.

uztarria@uztarria.com

Posta kutxa. 227, Azpeitia

Lege gordailua. SS-860/2000

Zenbakia. 161.a (2014ko maiatza)

Urtea. XV.a (1999ko azaroan sortua)

Maiztasuna. Hilabetekaria

Diseinua. Eregi Komunikazio

eta Euskara Zerbitzuak

Publizitatea. 685 730792 /

uztarria@uztarria.com

Bazkidetza. 943 15 03 58

Tirada. 2.500 ale hilerro

Inprimategia. Leitzaran Grafikak

Azaleko argazkia. M. Oiarzabal

Webgunea.

www.uztarria.com

Uztarrria herri aldizkariaren

laguntzaileak (erakunde publikoak)



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Euzko Legebiltzza
Gobernua Vasco



azpeitia
udala

Uztarrriak

Bai Euskarari

Oharra. Uztarrria

Komunikazio

Taldeak ez du

bere gain hartzen

herri aldizkariaren

adierazitako

esanen eta

iritzien

erantzukizunik



2014KO MAIATZEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?

16



34



04



iritzia

Inkesta. Zer iruditzen zaizu gazte lokalen araudia? **13**

mamia

Oier Agirrezabalaga.

Sanseko prestatzaile fisikoa da **04**

Klik! Benantxio Iruretaren bizitza argazkitan, hil eta urtebetera **16**

Memoria historikoa.

Azpeitiko memoria historikoa aztertuko du Aranzadik **20**

jakiteko

Bestaldetik. Aktore lanak alde batera utzita, bestelakoez jardun du Nagore Aranburuk **34**

Ba al dakizu uztarrriako kide bat Euskadi Irratiko 'mezuLaria'-n herriko kontuez aritzen dela hilean behin? Uztarrria

egin zaitez bazkide Uztarrrian




943 15 03 58

Herri aldizkariak gain, Uztarrriaren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte **13 liburu, CD 1** eta **biografiak txikiak** atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



1.060 bazkide **30** euro dira gara Uztarrria Komunikazio Taldean; eskerrik asko denei.

30 euro dira **urtean.** 110.000 euroko aurrekontua 2014an.



Liburuxka biografikoak, oraingoz. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra', Enrique Zurutuza, Maria Jesus Arregi

OIER AGIRREZABALAGA

Sanseko prestatzaile fisikoa

“EZ dut pentsatu entrenatzaile izatea”

Lagun Onaken eta Zestoan hasitako bideari jarraiki, Zubietara iritsi da. Harrobitik lehen taldera doan bidegurutzean da egun, gustura. 📧📷 Julene Frantzesena

Zubietarako bidea, pausoz pauso, ondo ikasia dauka Oier Agirrezabalagak dagoeneko. Duela sei urte iritsi zen Realaren altxortegira, eta harrezkero, bertan dabil harrobiko jokalariek prestatzen. Egun Sanseko talde teknikoa osatzen du Asier Santanarekin eta Imanol Alguacilekin batera.

Nola iritsi zinen Realera?

Karrerako praktikak Realean egitea eskatu nuen. Urtebeteko partikaldia egin nuen kadete eta jubenil mailetan, eta gero, lanean hasteko aukera eskaini zidaten.

Kadete eta jubenilekin aritu ostean, Sansera.

Praktiketako urteaz gain, beste lau urte egin nituen maila horietako taldeekin, eta aurtan da San-

serekin ari naizen aurreneko denboraldia.

Zer moduz doa aro berria?

Oso gustura nabil, baina desberdina da. Adinez nagusiago dira Sanseko jokalariek, eta bakoitzaren helburuak ezberdinak dira. Gogorragoa da. Jokalari bakoitzak bere interesak ditu, eta beste modu batera funtzionatzen dute. Hori bai, jarrera oso ona dute, garbi dute-eta futbolari izan nahi dutela.

Aldea bada, orduan, maila batetik bestera.

Kadeteetan eta jubeniletan klubak zehaztuta dauka metodologია, eta helburuak luzera begira-koak dira. Emaitei ez diote halako garrantziarik ematen, eta gehiago saiatzen dira jokalarien

||| DATUAK |||

||| **Jaio.** 1986ko abenduak 13.

||| **Herria.** Azpeitia. ||| **Bizitokia.** Azpeitia. ||| **Lanbidea.** Relaren bigarren taldeko, Sanseko, prestatzaile fisikoa.

gabeziak hobetzen. Asteburuko emaitzek ez dute horrenbesteko garrantzia

Orain, erdibidean nago. Sanseko jokalarien helburua lehenengo taldera pasatzea da, eta emaitzek ere badute garrantzia. Azkenean, futbolaren barne logikaren arazoietako bat da irabaztea. Mailen arteko desberdintasun handiena da, aurkariak maila altuagoa dutela orain eta asteburuko emaitzek garrantzia dutela.

Garbi al zenuen prestatzaile fisiko izan nahi zenuela?

Txikitatik garbi nuen soinketare-

kin zerikusia zuen zerbait ikasiko nuela. Gero, IVEFen, hainbat gaitan sakontzen hasi ginen, eta entrenamenduarekin zer ikusia duten gauzak ikasi nituen. Futbolarekin edo entrenamenduarekin lotutako zerbait egin nahi nuen. Karreran ikasten duzu, oinarri bat hartzen duzu, baina futboleko maila altuetan hastean ikusten duzu beste arlo batzuetan sakondu eta hobetu behar duzula. Eta, horretan garrantzitsuak izan dira egin ditudan masterrak.

Prestatzaile fisikoak zer egin behar ditu Sansen?

Nire lana da entrenatzaileari lan-saioetako ariketak prestatzen laguntzea. Egun bakoitzean zer lan egin zehaztea. Eta, bestalde, min hartutakoei errekupeazioan laguntzen diet; lesiotik ateratzen lagundu eta errekupeazio ariketak prestatu. Entrenatzaileari niri dagozkidan kontuen inguruko orientazioa ere eman behar izaten diot,



eta entrenatzaileak zalantzak baditu, hari laguntzea ere badagokit. Kirol guztiak desberdinak dira, eta futbolerako prestakuntza fisikoa oso zehatza da.

Nolakoa da zure lan egun bat?

09:00etan elkartzen gara talde teknikoa Zubietan, aurreko eguneko entrenamenduaz eta egingo dugunaz hitz egiteko. Jokalariak 10:00etarako prest izaten dira, eta prebentzio lanak egiten ditugu. 10:30etik 12:30era izaten dira entrenamenduak, eta bukatutakoan, errekupeazio lanak egiten ditugu.

Asteburuetan, bitik behin, kanpora joan behar izaten dugu. Aurtun, Las Palmasen, Toledon, Madrilen... izan gara. Gustuko lana da, baina bueltako bidaiak luze egiten dira, batez ere emaitza txarra izan bada. Oso lan lotua da.

Zauden tokian ondo zaude, edo lehen taldera iristea duzu helburu?

Ez dut pentsatu ere egin. Futbolearen behin maila hauetara iritsita ez dago jakiterik. Ez dago jakiterik, detaile txiki askoren arabera etor daitezkelako aldaketak, eta horiek ezin ditut nik kontrolatu.

Gazteekin ala Sansen, baina neure burua ondo prestatuta ikusi nahi dut. Bietan egon naiz gustura, eta mailak ez dit axola. Gehien betetzen nauena da jokalariei laguntzen diedala ikustea, eta horiek nirekin duten esker ona. Egunen batean etortzen bada, ba ondo, baina ez da lehenengo helburua.

“emaitza txarra izan bada, luzeak egiten dira bueltako bidaiak”

“maila altuetan hastean ikusten duzu hobetu behar duzula”

Eta, entrenatzaile?

Entrenatzaile ona izatea zaila da. Errazagoa da prestatzaile ona izatea. Asetzen nau prestatzaile izateak, eta titulua badudan arren, ez dut sekula pentsatu entrenatzaile izatea. Entrenatzaileak erabaki zail asko hartu behar ditu, eta ardura handia da.

Diotenez, entrenamendua bezain garrantzitsua da atsedean hartzea.

Kadete eta jubenilak ez dira duten aukeraren jakitun. Ez dira kontziente Reala bezalako klub batean aritzearekin duten zortez. Realak harrobian asko sinesten du, eta aukerak ematen dizkie jokalariei. Ikasketak zein azterketak eta tarteko, garrantzia eman bai, baina ez dira goi mailako futbolari izateko egin behar den esfortzuaz jabetzen.

Sansekoekin, berriz, harriritu gelditu naiz. Izugarritzko seriotasuna eta jarrera ona dituzte entrenamenduak, deskantsuak, errekupeazioak... egiteko. Oso garbi dute zer nahi duten, eta zer aukera duten ere badakite. Salto hori da zailena, eta ondo dakite zer esfortzu egin behar duten jautzia emateko.

Azpeitiar jokalaria batzuk badira Realean. Harremanik ba al duzu?

Jon Guridirekin bai, berarekin aritzea tokatu zitzaidalako jubeniletan. Ugaitz Kerejeta eta horiekin ere bai, Realeko gainerako jokalariekin dudan gisan. Baina, azpeitiarrak izanda, saiatzen naiz galdetzen zer moduz dauden eta. Entrenamendutik etxera nirekin autoan ere etorri izan dira. Hala ere, entrenamenduetan egokitu zaidan bakarra Guridi da. Aranburu eta Labakarekin, berriz, ez dut kointziditu.

Lehen taldean dabilen jokalaririk prestatu al duzu?

Bai, aurtun debuta egin duten Joseba Zaldua, Marco Sangalli eta Jon Gaztañaga prestatu ditut. Eta baita Ruben Pardo, Iñigo Martinez eta Antoine Griezmann ere, jubeniletan zirenean.✱

AIZPURU AUTOAK

Landeta auzoa - Telf: 943 81 23 59

Faxa: 943 81 22 81 20730 Azpeitia

aizpuru@aizpuru.net

Nirea (nirea ala gurea)

Zalantzak izan ditudan arren, gaiarekin jarraitzea erabaki dut. Ea noraino irits naitekeen; beste zenbaki bat ere ziur hartuko duela, hori ziurtatzen dut.

Jakina da, gizakia gainontzeko animalien-gandik bereizten duen ezaugarri nagusienetakoa, bere ingurunea bere behar eta nahien arabera moldatzeko duen gaitasuna dela. Lurra, ura, airea, petroleoa, elurra, izotza, euria, tximistak, tifoia, zekaleak, lurtarren jabe go dira. Horien ustiapena komunitatearen eta ekosistemaren biziraupena bermatzera bideratuta egotea da berezko araua, naturala. Lurrarekin harmonian, eskaintzen dituen baliabideak modu jasangarrian erabili eta gure biziraupena bermatzeko gaitasuna dugu, garunak logika, matematika, fisika, edota artea, garatu eta hobetzeko aukera ematen digulako. Baina lurra guztion bizi eremu bezala ulertzen ez badugu, ez salerosi eta 'eduki' daitekeen gauza bat bezala, egungo egoerak justifikazio osoa du.

Jabetza pribatuak kapitalismoaren motorra den metaketa ahalbidetzen du, eta metaketaren balantzaren beste aldean gabezia dago. Hau da, metatzen duenak guztia metatu daitekeela ulertzen du, eta metatuaren errentagarritasuna bilatzen. Dena da merkantzia, gauza. Honi men, gabezia duena zapaldua, esplotatua da, metagarria, erabili eta bota daitekeena. Guk uste gabe ere, logika hori jarraitzen dugu; berezkozat jotzen ditugu, adibidez, Afrikako gosete orokortua, langileriaren zapalkuntza edota genero indarkeria. Bada, horren atzean, jabetza pribatuaren logika besterik ez dago. Zapalduak eta zapaltzaileak gara, aldi berean. Nirea defendatzen dut, partekatu eta gurea bezala ulertu beharrean. Horrela, logika horri jarraituz, gizakiok 'gehiago izan', hobetu baino, 'gehiago edukitzearen' hautua egiten dugu.

Beraz, 'nire' biziraupena bermatu behar dut. Interferentzia munduaren ulerkeran; zaila egiten zaigu ikustea gure parekoen aldeko



|||||||hodei mendinueta|||

|||Berezkozat jotzen ditugu Afrikako gosete orokortua, langileriaren zapalkuntza edota genero indarkeria

defentsan bizitzeak besterik ez duela zentzua, eta ulertzen badugu ere, horren arabera ekiten ez zaigu irakatsi. Beraz, beldurra, lotsa eta baztertuak izateko mekanismoek erasotzen gaituzte.

Metaketa mugagabearen mugak

Liberalismoaren sakoneko funtsari heldu behar, beraz. Nahiz eta Hobbes eta zenbait pentsalarik *homo homini lupus* (gizakia gizakiari otso) eta zenbait antzerako ideien gainean estatuaren sorrera justifikatu, estatutik gabe milaka urtetan bizi izan gara. Ez gara teoria paktistek zioten bezala "ingurune batean, modu isolatuan, segurtasunik gabe eta mehatxu jarrai batean" bizi. Ez dugu itunik sinatu gure artean, ez gara elkarren etsai. Ideia horren ondotik, segurtasun eta jabetza propioaren bermea estatu egituren muin izateak, ekarri gaitu bizi dugun egoerara

Partekatzearen gizatasuna albo batera utziaraziz, ez daukanaren egoeraz arduratzearen aurretik jarri ohi dugu 'gehiago edukitzea', edo behintzat, nik edukitzea. Gure ondasunek gure estatusa indartuko balute bezala. Eta posible da, baina egungo krisi moralak erakusten dizkigun gauzen artean da ondasun, kapital, lursail eta abarren metaketa mugagabeak amaiera daukala, giza ikuspuntu batetik berdinen arteko zapalkuntza besterik ez baitakar eta ikuspegi geobiologiko batetik lurraren baliabideen agortzea.*



ASKATU
+ ZERBITZU
TEKNIKOAK
/ OSAGARRIAK
X MUGIKOR
ASKEAK ETA TABLETAK

MOVILQUICK

 **movilquick**
zure zerbitzu teknikoak

C/ JOSÉ DE ARTETXE, 8 BJ | TEL: 943 812 231 | AZPEITIA



IRAURGI
ikastetxea

Matrikulazio egunak;
Maiatzaren 5etik 15era.

Ate Irekiak;
Maiatzaren 5ean, 17:30ean,
Etxe alai 18-ko eraikinean.

Telf: 943-810210.



2 0 1 3



Kristau eskola



**Pertsona
autonomo, konprometitu
eta sortzaileak
hezten ditugu**

Gutxi asko da

D aukazun gehiena saldu eta benetan funtsezko objektuekin gelditze-ko ametsa edo asmoa izan baduzu inoiz, minimalismoa gertukoa egingo zaizu. Minimalismoa arte, arkitektura edo diseinuan erabilitako kontzeptu bat da zeinean espazio hutsa den protagonista; etxe batean ahalik eta objektu gutxien izatean datza, eta daudenak funtzionalak eta erabat funtsezkoak. Horrek estetika berezi bat sor dezake, apaingarri guztiak soberan geratuz.

Ba hori baino gehiago ere bada, edo agian korrante horren zuztarra da, bizi-estilo edo filosofia ere bai baita. Zenbat eta gutxiago izan, are zoriontsuago.

Argi, horrek ez du esan nahi eskale baten moduan bizitzea denik kontua, baizik eta zure gastua eta esfortzua objektuetan zentratu beharrean esperientzia eta bizipenetara zuzentzea.

Korrante edo pentsamolde zurrin eta ideia ortodoxoetatik aparte, eta nahi baduzue minimalismo hitza alde batera lagata, egia da gauza asko izateak nekea ere gehiago sortzen duela. Alde praktikoari begiratzen badiogu, imajinatu gure egunerokoan etxea garbitzerako orduan, adibidez: zenbat eta objektu gehiago orduan eta hauts gehiago kentzeko. Azkenean gauzek bere dedikazioa, lana eta denbora eskatzen dute eta, jakina, kostua ere bai.


Harritura geratuko ginateke etxean zenbat gauza ditugun alferrik ikusita, ertz batean useltzen, badaezpada bota gabe, barrenean jakitun gauza horiek ez ditugula sekula erabiltiko. Zeren zain gaude gainera kentzeko?

Ez dakit zuen kasuan hala izango zen, baina nik behintzat komunera joateko adinako libratua hartu izan dut etxeko traste zaharrak gainera kendu izan ditudanetan. Hala ere, trasteak botatzea baino interesgarriago eta aberasgarriagoa da, dudarik gabe, beste norbaiti ematea, edo saltzea. Afrikako pobrei emateaz aparte –errespetu guztiarekin–,



|||||||iosu salegi|||||

|||Zurgin batek hala zioen:
“Erreminta piloa
edukitzeak ez zaitu
lanean abilago egingo”



bertatik bertara mesede ederra egin dezakegu ume arropa, karrtoa edo liburuak albokolari pasatuta. Azpeitian bertan egindako bigarren eskuko azkoka bezalako ekimenak interesgarri nahiz aberasgarriak iruditzen zaizkit.

Bizipenez gozatzea

Ikuspegi ekonomikotik begiratzen badiogu, berriz, zenbat diru gastatzen ote dugu gauzetan? Edukitzearen premia hori oso epe laburrekoa izan ohi da, ze denbora batera ez dugu jada hasierako grina hori, eta behin ilusioa pasatutakoan objektu hil bihurtzen dira.

Sarritan objektuak erosten ditugu grin posesibo batek bultzatuta, hasi handitik –etxea, kotxea– eta txikiraino –arropa, apaingarriak, eta abar–. Pertsonak desberdinak gara eta gustoak ere halakoxeak, baina ez genuke ahaztu behar objektua bizitzan lagungarri gerta dakiguen erreminta bat dela. Zurgin batek hala zioen: “Erreminta piloa edukitzeak ez zaitu lanean abilago egingo”.

Etxean ehun liburu edukitzeak ez gaitu jakitunago egingo, bat bera ere irakurri ez badugu.*



LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABEKO ORDUTEGIA



Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara

Zapatuetan:
10:00etatik **14:00** etara

Doctor Antonio Murillo

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneluko Zuzendaria. **Lleidako Unibertsitatea eta Madril.** Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfontso X.a Unibertsitatea, Madril.** Implantologia Masterreko Irakaslea. **Lleidako Unibertsitatea.** Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamancako Unibertsitatea.** Unibertsitate Institutioetako Irakasle gonbidatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

Doctora Ainhoa Zulueta

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.** Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. **Leongo Unibertsitatea.** Diplomaturia Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.** Hartz-Estetikan Diplomaturia. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.** Hartz-Estetikan Diplomaturia. **Autran Institutoa, Bartzelona.** Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.** Oklusioan Graduondoa. **Anibal Alonso Doktorea.**

Eibarko Dendarien Elkarte
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguazu!



MUTUAK ETA ASEGUURUAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGON/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADL...
Galdetuiguazu!



IRAZABAL

clínica dental


FINANTZIAZIO BEREZIA

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

Aitorpena euskaraz

Abian da errenta aitorpena egiteko kanpaina, eta ekainaren 25a bitartean izango da horretarako aukera. UEMAk eta Udalak aitorpenak euskaraz egitea bultzatu nahi dute.  Julene Frantzesena

Udaberriarekin iritsi da aurten ere 2013ko zergei dagokien errenta aitorpena egiteko kanpaina. Ekainaren 25a bitartean egin ahal izango da telefonoz, Gipuzkoako Ogasunaren bulegoetan edo Internet bidez. Herritarrek aitorpena gaztelaniaz ala euskaraz egitea aukeratu dezakete, horretarako dauden modalitate desberdinetan.

Azken urteetako gisan, errenta aitorpena euskaraz egiteko kanpaina jarri dute abian Udallerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) eta Azpeitiko Udalak. UEMako lehendakari Malen Belastegiren arabera, "euskarak bide berriak urratu ditzan lorzea" da helburua.

Kontxita Martija udal zinegotziak azaldu duenez, "Azpeitian euskaraz bizi gara nagusiki, baina zen-

bait eremutan, herritarrek administrazioarekin dituzten harremanak kasu, erdara gailentzen da oraindik. Euskararen normalizatorako euskararen erabilera eremu guztietara zabaldu behar dugu; eta horretan, administrazioaz gain herritarrek ere badute zer eginik".

2013an 7.699 azpeitiarrek egin zuten errenta aitorpena, eta horietatik %31,9k egin zuen euskaraz. 2012an baino altuagoa da iaz euskaraz egin zuten kopurua, baina "aurten jauzi berri bat" eman nahi dute kanpainaren sustatzaileek.

Dena den, UEMako kide diren Gipuzkoako udallerrien artean Azpeitia izan zen iaz, Aizarnazabalen ostean (%34,6), euskaraz aitorpen gehien egin ziren herria.*



2013ko ERRENTA AITORPENA Euskaraz

MEKANIZATUA:

- Hitzordua hartzerakoan, adieraz ezazu Ogasunarekin harremanak euskaraz izan nahi dituzula.
- Ogasunarekin aurrez aurreko harremanak, nahiz telefono edo Internet bidezkoak euskaraz izan ditzakezu, horrela eskatzen baduzu.
- Ogasunak sinatzeko ematen dizun orria ere euskaraz jaso dezakezu.

AUTOLIKIDAZIO PROPOSAMENA:

- Jasotako proposamena onartzerakoan, euskaraz egitea nahi dituzula esan eta aurrerantzean Ogasunak agiriak euskaraz bidaltzeko ditzake.

INTERNET BIDEZKOA:

- Errenta programaren euskarazko bertsioa jaitzi Internetetik eta hor bertsioak hizkuntza akalean euskaraz aukeratu.
- Aholkularitzaren bati aukeratzen baduzu, espresuki adierazi behariko duzu aitorpena euskaraz egin nahi duzula.
- Beste modu batean egiten baduzu (finantza erakunde batean, adibidez), euskaraz egiteko eska dezakezu.



12 Tribu taldeko kideak.

ESANA DAGO

III "Hamar lagun, hamar mundu dira"

III "Taldekideen artean gauzak okertu aurretik uztea erabaki dugu"

IMANOL BEOBIDE
12 tribuko musikaria

III "Euskarak baditu alde onak, baina kontuz ez bagabiltz, testuak konplikatu ditzakegu"

III "Euskaraz gozateko ohitura sortu nahi dugu irakurketa errazteko liburuekin"

FERNANDO MORILLO
idazlea



Aiertza Autoak
CITROËN 943 811 915 - AZPEITIA
aiertzaautoak@telefonica.net
MOTA GUZTIETAKO AUTOEN KONPONKETAK



domusa

Komuniyo txikiye

Aspaldian sarriegi hasi naiz atzera begira. Baina lasai, zahartosiak ez nau jo, eta ez nau joko (eta jotzen banau eman koskorrekoa, eskertuko dizut). Alegia, ez dudala gure garaiak, iraganeko garaiak, hobeak zirela, edo izan zirela, inoiz esango. Garaian garaikoa, orain Urkullu eta lehen Garaiko.

Nik ez nuen Jaunartzerik egin, nik komuniyo txikiye egin nuen. Prailez jantzita, oso guapo.

Urte dezente pasatu da baina gauza batzuk gogoan ditut. Argazkiak Kaitorenean atera nituen –gaur egun ixpiziyue dagoen

leku berean–; mezetan para bat esaldi irakurri nituen; eta bazkaria Loiolan Amenabarrenekoan egin genuen. Gogoan dut baita ere, plastikozko baloi bat oparitu zidatela eta lurrean zegoen puru batekin zulatu egin zela. Plastiko puskak ibaira bota nituen (barka bekit Errazkin jaunak).

Nire alabak ez du komuniyo txikiye egingo, Jaunartzea tokatzen zaio hari. Eta badugu nahikoa komeria ospakizun egunerako pres-taketa lanekin.

Zenbat burukomin jauna hartu aurretik. Jantzia, argazkiak, bazkaria... Beraz, lehen eta



txetxu urbieta

orain, dena berdin. Komuniyo txikiye eta Jaunartzea, biak bat. Guzti hau, edo hau guztia, Jesus buru duen taldeko kide izateko. Esan eta izan, biak bat? Praile den Pello lagunari galdetu beharrik ez erantzuna jakiteko.

Baina dena ere ez da berdin. Gure garaian denok egin genuen komuniyo txikiye. Gaur, erdi eta erdi izan litezke Jauna hartuko duten eta hartuko ez duten haurrak. Nahi duenak nahi duena egitea ere gauza ederra da. Gure herrian denontzat dago lekua, batzuk beste batzuk baino leku gehiago behar badute ere. Fisikak federik ez.✘

IRENE ALTUNA
LORADENDA
Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87
www.ialtunadenda.com

ukabi
informatika

Zure informatika denda

DIMONI

Salbe Alzuntas 29, beheak
Tel.: 943 15 01 01 Faxa: 943 15 00 01
www.ukabi.com

Etorkizunerako zure giltza.



Poliki Poliki English Classes
URRESTILLA
Telf: 685209875
phlaaps@yahoo.com
www.tonybyrne.webs.com

APIRILEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



Auzoari bizia emanez

AZOKA URRESTILLAN. Igaro berri da bigarren eskuko azoka, eta aitortu beharra dago bolondres gisa elkarte hauetan lan egiten duen jendearen prestutasuna eta solidaritatea. Azkeneko aldi honetan, gainera, Urrestillan egin dute eta ongi dago auzo eta toki ezberdinei bizia ematea horrelako ekimenekin. Horrelako elkarrean gauza berritzaileek toki oparoa izaten dute.



aitor gorrotxategi



Zorionak, Gorka!

ELHUYAR SARIA. Gure herrian jende asko egongo da zientzia maite duena eta Gorka Azkunek dioen bezala, beste askok oso urrun sentitzen dute. Nire hitz hauekin Gorka zoriondu nahi dut. Ea bere sariak zientzia gertuaxe-ago sentitzen laguntzen digun. Zorionak ba, Gorka!



Loiolatik herrira

TURISMO BULEGOA. Loiolako Santutegia gure herriak duen altxor preziatuenetakoa da; Aste Santuan 5.000 bisitari inguru izan ditugula irakurri dut. Kanpotarrak informatzeko eta guk datuak izan ditza-gun lan handia egiten du turismo bulegoak. Gure herrian beste hainbat

toki zoragarri ere baditugu eta, Loiolara etortzen direnetatik portzenta-je txiki bat haietara hurbilduko balitz, herriak irabaziko luke. Maitzaren 1ean Madalenako ospitalea inauguratu dute. Basilikatik harainoko tar-tean dagoenari etekina ateratzen saiatu beharko genuke.*

INKESTA

zer iruditzen zaizu gazte Lokalen araudia?

J. Frantzesena/E. Albizu

HARITZ ARAKISTAIN

21 urte



“Ondo iruditzen zait arau komun batzuk jartzea. Arautu beharra zegoen. Hala ere, badira abstraktu geratu diren gauza batzuk; gaez lokalean lo egitearen kontua, adibidez. Guk ez dakigu nork zer egin behar duen, lokalaren jabeak egin behar dituen aldaketak edo ez”.

zagoen. Hala ere, badira abstraktu geratu diren gauza batzuk; gaez lokalean lo egitearen kontua, adibidez. Guk ez dakigu nork zer egin behar duen, lokalaren jabeak egin behar dituen aldaketak edo ez”.

AMPARO LABAKA

48 urte



“Ez zait gaizki iruditzen. Bi seme-alaba ditut, eta haiek komunak badituzte, behintzat, lokalean. Hala ere, bizilagunekin elkarbizitza soluzionatzea konplikatu iruditzen zait. Nik ez daukat lokalik etxe inguruan, eta asko herrigunetik aparte daude, baina lokala inguruan duten herritarrak zaratekin-eta kexatzea normala da.”*

eta haiek komunak badituzte, behintzat, lokalean. Hala ere, bizilagunekin elkarbizitza soluzionatzea konplikatu iruditzen zait. Nik ez daukat lokalik etxe inguruan, eta asko herrigunetik aparte daude, baina lokala inguruan duten herritarrak zaratekin-eta kexatzea normala da.”*



Ispiluari begira

Duela hogeita hiru urte inguru hasi zen dena, orduan erabaki baitzuten egun nire guraso direnek beste ume bat mundura ekartzea, eta nire ama haurdun geratu zen. Hilabete batzuk pasatuta, medikuek amaren sabelari atera zioten argazki batean zakilik gabe jaioko nintzela ikusi ei zuten, neska izan behar nuela erabaki.

Hurrengo erabakiak nire bizitza baldintzatu du, beti nirekin eraman dudana eta eramango dudana zerbait ekarri baitzidan, izena. Amaia izenez izendatu ninduten, modu berean erregistratu, eta oroimena dudanetik Amaia entzutean biratzen dut burua.

Orduan hasi zen nire existentziaren historia, orduan ezarri zituzten nire egungo izaeraren lehen adreiluak. Modu askotan jantzia izan naiz, orri asko ditu dagoeneko nire bizitzaren liburuak. Liburu hau nik neuk idatzia dela uste nuen, eta egia da hein handi batean neronek norabidetu dudala idatzia, nire eskuetan dagoela luma. Baina norabidea auke-



amaia agirretxe

ratzeko parada oinarri batetatik abiatu zen, eta orduko izatearen funtsa baldintza zezaketen kapituluak idatzita zeuden. Hasierako adreilu haiek garrantzia handia baitute nik jartzea erabakitzen dudana adreilu berri bakoitzaren izatean, kolorean eta forman.

Bestalde, nire eraikina eraikinez inguraturik dago. Eraikin horietako batzuk kasualitatez egokitu dira nirearen inguruan; beste batzuk, berriz, jarri ditudan adreiluei esker. Baina denek eragiten dute arkitekturaren, edo nire liburuaren idazkeran. Batzuek zeuden orriak idaztea lortu duzue, beste batzuk, nire kaligrafia aldatzea, parentesi eta harridura ikurrak gehitzea, edo eta paragrafo bat amaitzea.

Eta beste bat bestea.

Gustuko dut ikusgarri nahiz ikusezin diren prentzak erantztea, egituraren konplexutasuna ulertzen saiatzea, inguratzen naudenarekiko kontzientzia izatea. Ispiluari begira biluztea.*

galdetzen hasita, 2015ean, dioten moduan, Aita santua Avilara joaten bada, Loiolara ere egingo al du bisita? Uztarria

Inmatrikulazioak

Erregistratu gabeko ondasun bat jabetza-erregistroan norberaren izenean jartzeari deitzen zaio ‘inmatrikulazioa’, jakingo duzunez.

Eta badakizu horretan diharduela buru-belarri espainiar estatuko Eliza katolikoaren hierarkia? Erabiltzen dituen nahiz erabili izan dituen elizak, abade-etxeak, lur-sailak..., ahal duen guztia bere izenean jartzen ari da, Francoren 1946ko lege bat eta Aznarren 1998ko dekretu bat baliatuz. Gutizia lotsagarria da, Elizarena lotsagarriago.

Eta badakizu lehia zatar horretan zein izan den aitzindari eta zein den orain artean txapeldun? Nafarroako Eliza, hobeto esan, Iruñea-Tuterako Gotzaindegia: 1998tik 2007ra bitartean, 1.089 ondasun inmatrikulatu zituen –elizak eta ermitak gehienbat, baina baita apaiz-etxe, lokal eta lur-sailak ere, eta zortzi hilerri, eta frontoi bat...–, eta auskalo noraino iritsiko zen, nafarrek –kristau asko buru– gotzainari alto eman izan ez balio. Baina ahal duen heinean



joxe arregi

aurrera jarraitzen du, eta jarraitzailerik ez du falta atzetik.

Norenak dira gure hiriburuetakako katedralak, herrietako elizak, auzoetako ermitak? Norenak dira gure hiri, herri eta auzoetako abade-etxeak, askotan baratze, eskola edo frontoi eta guzti? Eta kanposantuak? Herriak eraiki zituen bere zergaz edo limosnaz, herritar guztiak –ia guztiak– gogo onez edo txarrez eliztar ziren garaian. Herriak berriro izan ditu belaunaldiz belaunaldi, bere dirutik edo bere besoez auzolanean. Herriarenak ziren, Elizak herria ordezkatzeko zuenean. Orain, ordea, Elizak ez du herria ordezkatzeko. Beraz, herriarena zena herriarena bedi, ez Elizarena.

Noski, Elizak erabiltzen dituen elizak jarrai beza lasai erabiltzen, baina jabe izan gabe, inmatrikulatu gabe. Ondasunak inmatrikulatzen dituen Elizak Ebanjelioaren matrikula galtzen du. “Doan hartu du-zuena, eman ezazue doan”, esan zuen Jesussek.*

BATXILERGOKO eta LANBIDE HEZIKETAKO AURREMATRIKULAZIOA ZABALIK



UROLA IKASTOLA
AZKOITIA - AZPEITIA BHI

DBH - BATXILERGOAK - LANBIDE HEZIKETA



Kalitatea zure zerbitzura

matrikula zaitez on-line:

www.urola.org

BATXILEGOAK

- ZIENTZIAK ETA TEKNOLOGIA
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

AURREMATRIKULAZIOA

Maiatzaren 5etik 15era

Perdilegi, 3 - AZPEITIA

-Tif: 943 81 37 70

Altamira auzoa z/g - AZKOITIA

-Tif: 943 85 21 74

LANBIDE HEZIKETA

- ERDI MAILAKO ZIKLOAK

- Mekanizazioa
- Instalazioa eta altzari hornikuntza
- Arotzeria eta altzarigintza

- GOI MAILAKO ZIKLOAK

- Administrazioa eta finantzak

ATE IREKIAK

- Maiatzak 10 larunbata 11:00etan
- Maiatzak 15 osteguna 18:30etan

AURREMATRIKULAZIOA

Maiatzaren 27tik ekainaren 6ra

Altamira auzoa z/g - AZKOITIA

-Tif: 943 85 21 74



Itzulera

Hiru hilabetean ibili naiz kanpoan, pasieran. Izugarritzko bazterrak ikusi ditut: ia inor pasatzen ez den asfaltatu gabeko bideak; izotz puska amaigabeak; basamortu tankera-ko zabaldo bukaezinak; apenas urik zuten harritz betetako ubideak; itsaso ziruditen laku, ibai eta ur-jauziak; gure parajeetan ezagutu ere egiten ez ditugun hainbat animalia mota; altuera handiko mendiak eta mendateak; eta abar.

Kanpoan ibili naiz hiru hilabetean, pasieran. Egin ditut egunak bakar-bakarrik, eta sentitu izan dut batzuetan herrimina; "zeinek

esan ote zidan niri herri honetara etortzeko?", galdetu diot neure buruari behin baino gehiagotan.

Baina momentu jakin batzuetako gauza izan da bakardadearena. Izan ere, jende mordo ezagutu dut: jende mordo eta jende izugarria. Baziren, batetik, neure moduan mundua ezagutu nahian pasieran zebiltzanak; hiriko bizitzaz nazkatuta bizimodu lasaia goetara joan direnak ere bai; baita hirian gustura egon eta hiria inoiz utziko ez dutenak ere...



■■■■■■■■■■ñaut frantzesena■■■■■■■■■■

Sentitu izan dut bezperan ezagututako baten bat betitik ezagutzen nuela, eta bidaia osoan neurekin balego bezala izan da, izugarritzko *feeling*-a egon delako gure artean. Eta hainbat despedida hunkigarriak izan dira, benetan. Baina agurren ondoren beti agertu izan da beste lagunen bat, berria, zerbait eskaintzeko zuena. Eta elkarri gauzak eskaini dizkiogu, bakoitzak bere esperientziatik, bere ikuspuntutik, bere begiradatik. Eta mundiala izan da.

Gustura ibili naiz kanpoan, pasieran. Eta gustura itzuliko naiz.*

'Da' (Zea Mays)

Oraingo honetan, Zea Maysen zazpigarren lanarekin nator, 2013ko azaroaren 7an argitaratu zuten *Da* izeneko diskoarekin, hain zuzen ere. Disko honetan taldeak bere musika mailari eusten jarraitzen dio eta, taldeekin normalean gertatzen den bezala, ez dira bere horretan gelditu. Diskoak, beti lortzen dute aurrekoa hobetzea.

Hamahiru abestiz osatutako diskoa da eta taldearen teknikoak den Jose Lastrarekin grabatu zuten, Urdulizko Tio Pete estudioan. Disko honen berezitasun bat Dave M. Allen-en eskutik etorri da, berak egin baitu produkzioa eta nahasketa Londresko Ralphy Club-ean. The Cure, Depeche Mode, Sisters of Mercy... bezalako taldeekin lan egin duen produktore ospetsua da Allen.

■■■■■■■■■■KRITIKA■■■■■■■■■■ 'Da' (Zea Mays)



Disketxea. Autoekoizpena.

Argitalpen urtea. 2013.

Abesti kopurua. 13.

Estiloa. Pop-rock.

Salneurria. 11 euro.

Taldeekideek diotenez, beraiek direna isladatzen duelako jarri diote *Da* izena diskoari: alde basati bat du, beste bat poperoa-go eta baita alderdi dantzariago bat ere.

Lehen singlea *Hurbil* izan zen. Bi alderdi dituen kanta da: bata lasaia, perkusio eta gitarra doinu errepikakorrekin; gero, abestia indartzen duen gorakada batzuk ditu. Egia esan, abesti hori entzun nuen lehen aldiaren ez zitzaidan asko gustatu. Beste zerbait espero nuen, indar gehiago zuen bat agian, eta Aiora Renteriaren ahotsak duen berezitasuna ez zela isladatzen iruditu zitzaidan. Horrek pixka bat blokeatuta utzi ninduen, ez ote zuen aurreko diskoek zuten maila izango.

Baina oker nengoen. Diskoa kaleratu eta segituan erosi nuen,

■■■■■■■■■■ane bastida■■■■■■■■■■

dudak argitzeko, eta a ze lasaitasuna. Lehen abestia, *Gaur*, hasi zenetik argi geratu zitzaidan hau zela nahi nuen Zea Mays; beste taldeetatik desberdintzen dituen zigilua zuen abestiak. Abesti sinplea da, apaindurekin gehiegi kargatu gabea, baina doinu gogorrazak ditu, singlea izateko aparta. Kantuetan eguneroko egoerak isladatzen dira, sentimenduz beteriko abestietan, non Aioraren ahotsa den elementu nagusia. Hala ere, ezin ditugu ahaztu Zea Maysen gainerako partaideak, Piti Imaz (gitarra), Ruben Gonzalez (baxua) eta Asier Basabe (bateria), denen lan bikainaren emaitza baita diskoa.

Xehetasun gehiago eman gabe, zeuen esku uzten dut diskoa entzutea. Ziur nago gustukoa izango duzuela.*



lentzeria mertzeria
jose artetxe, 16
nabar

AZKOITIA
ERLOJU KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

EREGI
EUSKARA ETA KOMUNIKAZIOA
goiko kalea 5, 3A tel.: 943 08 06 88
azpeitia eregi@eregi.net eregi.net



▲ MAISUA.

Zenbat lagunen maisu izan ote zen Irureta mendian, eta zenbat lagunak gidari lanak egiten ote zituen mendian ibilitako urte guzti horietan. Irureta mendizaletasunaren erreferentzia izan zen azken hamarkadetan Azpeitian eta inguruetan. Argazkia 2011koa da, eta Irureta ageri da aurrean, gainerako mendizaleei bidea irekitzen, Castillo de Acherren (Huesca, Aragoi).

Mendien magalean

Maiatzaren 11n beteko da urtebete Benantxio Irureta Aneton hil zela. Haren bizitza lagunak eta familiakoek utzitako argazkitan jaso dugu. 📌 Julene Frantzesena



▲ TALDEAN.

Iruretak mundu guztiko hainbat mendiren gailurrak ezagutu zituen. Zortzimilako bat ere egin zuen, Yalung Kang (Nepal), 1988an. Taldean espedizio ugari egin zituen, eta argazki hau da bidaia horien lekukoetako bat: 2007an Perun izan zen azpeitiar koadrila. Argazkian ezkerrean goitik aurrena Aritz Odriozola da. 2009an hil zen Ori mendian, istripua izanda. Odriozola Lagun Onak Mendi Bazkunako presidentea zen zendu zenean.

► ETXEAN GISAN.

Etxean bezala sentitzen zen Irureta Ernio gainean. Mendi maitea zuen, eta aukera zegoen bakoitzean igotzen zen. Munduko txoko desberdinetako mendietan ibilia bazen ere, Euskal Herrikoak eta Piriniotakoak ez zitzaizkion txikiegiak edo besteak baino kaskarragoak iruditzen.





▲ **BIDAIAK.**

▼ Bidaia ugari egin zuen Iruretak. Goiko argazkian Nepalen ageri da; eta Pakistanen, berriz, behekoan.



▲ **TRANSMISIOA.**

Mendizaletasunaren transmisioan lan itzela egin zuen Iruretak. Gazte ugari eraman izan zituen mendira, zer zen ezagutu zezaten. Argazkia 1994an Vignemalen (Pirinioak, Frantzia) ateratakoa da, eta Benantxiorekin ageri dira Garbiñe Bereziartua, Ibon Azkune eta Beñat Arrue. Mendiak "une garratzak" ere ekarri zizkion Iruretari. Izan ere, Pumori (Nepal) mendirako espedizioan Arrue eta beste lau lagun hil ziren 2001ean, istripua izanda.

▶ **LAGUN ONAKEKO KIDE.**

Lagun Onak Mendi Bazkunakoekin hainbat mendi zapaldu zuen. Bazkunako batzordeko kidea ere izan zen. Argazkian Lagun Onakekoekin agertzen da Irureta, 2012an, Gran Facha (Pirinioak, Huesca) mendian.





◀ GUTUNAK.

Ohitura handia zuen kanpamenduetan gutunak idazteko. Argazia 1982an Perun ateratakoa da.



▲ 'MENDIA ARNAS'.

Uztarriak 2011n Irurretari egin zion elkarrizketan esan zuen mendiak emandako gauzarik onena "lagunak" zirela. Mendian egindako lagun horiek bere bizitzaren inguruko dokumentala egin dute eta, Mendi Astearen baitan, Soreasun emango dute, maiatzaren 22an.

▼ AZKEN IGOERA.

Igo behar zuten mendiari, Anetori, begira, 2013ko maiatzaren 11n. Amildegi batean erorita zendu zen eguerdi hartan. Maite zuena egiten hil zen. Maialen Lujanbiok hala kantatu zion Inurrategiri: "Bizitzan ilusioa herioren paradisu".



Hurbildu, elkar ezagutzeko

Jatorri ezberdineko azpeitiarren arteko elkarbizitza bultzatzeko lanean hasi da Elkar-ekin. Lehen pausoa, atzeritarrengana hurbiltzea. ✍️📍 Mailo Oiarzabal

Beti pentsatzen dugu hartu egin nahi dutela. Ez dugu arreta jartzen ematen duten horretan, egiten dituzten ekarpenetan". *Argia* astekarian migrazio politikaz argitaratutako artikulu bateko hitzak dira, Bilbon bizi den emakume brasildar batek esanak. "Elkarrengana hurbiltzen bagara, hobeto ezagutuko dugu elkar. Jendea kanpotik datorrenean herri batera, arraza eta kultura ezberdin askotako jendea, oso garrantzitsua da herri horretakoek beste jende hori nondik datorren, nortzuk diren, zergatik eta zer asmorekin etorri diren ezagutzea; bertan gelditzeko al datozen ala denbora baterako al datozen jakitea", dio Buba Sow (44 urte) Azpeitian bizi den senegaldarrak.

Mezu horien ildoari ondo lotzen zaio Azpeitian Elkar-ekin elkarte egiten hasi den lana. "Orokorrean elkarrengana xedea herriko zapalduekin, behartsuenekin eta baztertuekin lan egitea denez, gure herriko jatorri ezberdinekoen arteko elkarbizitza hobetzeko eta euren ohiturak errespetatuaz gure hizkuntzara eta kulturara hurbiltzeko asmoz talde bat sortzea" erabaki zutela azaldu du Elkar-ekineko

eta talde sortu berriko kide Imanol Agirrek. Hasi besterik ez dira egin, baina dagoeneko egin dituzte urrats batzuk. Lehenengoa, Azpeitian bizi diren jatorri ezberdinetako hainbat lagunekin harremanetan hastea izan da. Lazko irailean egin zen Azoka Herritik ekimena izan zen, nolabait, harreman horietako batzuen abiapuntua; azoka hartan, besteak beste, hainbat herrialdeetatik Azpeitira bizitzera etorritako jendeak ere hartu zuen parte, beraien gastronomia edota kultur adierazpenak plazaratuz. Talde berriaren xede diren herriarrek harremanak saretzen hasteaz gain, hitzaldi eta mahai-inguru bana ere antolatu dituzte, SOS Arrazakeriarekin bata, eta Azpeitian bertan etorkinekin hainbat arlotan lan egiten duten eragileekin, bestea.

"Denok gara azpeitiarrak"

2014ko urtarilaren 1ean eguneratutako udal erroldaren datuen arabera, 910 atzeritar bizi dira Azpeitian; espainiar estatutik hona bizitzera etorritakoak ez dira sartzen kopuru horretan. Jatorriak oso anitzak dira: 50 estatutik gora ageri dira zerrendan, %20

pasatxo Europako Esparru Ekonomikokoak, eta gehienak, ia %80, esparru horretatik kanpo daudenak. Hala ere, hiru herrialde nabarmenak dira: Maroko, Pakistan eta Portugal.

Agirrek nabarmentzen duenez, "erru handi bat da denak berdinak direla pentsatzea". Aurreiritziak eta errezeloak gainditzeko ez dago zuzeneko informazioa izatea bezalakorik. Eta horretan ari dira, hain zuzen ere, Elkar-ekinen. "Guretzat garrantzia handia du etorri berriekin egoteak, ohiturak eta izaerak ezagutzeak, arazoak eta bizipenak entzuteak... Euren lekuan jarri eta konfiantza hartzen joateak", azaldu du Agirrek.

Mezua definitzea ere "beharrezkoa" dela uste dute Elkar-ekinen, "zeren beharrak eraginda lan bila datorrenari immigrante deitzen diogu, mespretxuzko zentzuan, baina Alemaniatik datorren ingeniaria ez dugu etorkin bezala ikusten". Zentzu horretan, balizko arrazakeria edo xenofobia adierazpenetan baino, arazoa klase ikuspegian ikusten du Agirrek Berak argi dauka: "Denok gara azpeitiarrak. Eta eskubide eta betebeharrak berdinak ditugu.



Ezkerretik eskubira, Celia Mendes, bere alaba Daniela, eta Tayna de Sousa.

Zurumuru eta aurreiritzi asko dabil herrian, normala da, bertakoak egoera latzak pasatzen ari garela ikusita. Baina egoera honen errudunak ez dira kanpotik etorritakoak. Aitzitik, askotan, bertakook nahi ez ditugun lanak egiten dituzte, lanik prekario eta arriskutsuenak. Eta negozio txiki asko kanpokoei esker mantentzen da, edo adinekoen ongizatea”.

Bakoitzak bere istorioa

Elkar-ekin jatorri anitzeko azpeitiarrekin egiten hasi den bileretan parte hartu izan dute sarreran aipatutako Buba Sowk (Mbour, Senegal), Shahid Hussain (1983) eta Zahid Iqbal (1990) pakistandarrek –biak datoz Punjab eskualdeko Gujrat-etik–, eta Brasilgo Goianiako Tayna de Sousak (37 urte) eta Celia Mendesek (42 urte). Bostak bizi dira Azpeitian eta beren bizipenak azaldu dizkiote Uztarriari. Baita azpeitiar pakistandarrekin batera azaldu den Saif Ullah-k ere; 23 urte ditu, Azkoitian bizi da, eta ondoko herrian atzeritarrek herriratzeko abian dituzten ekimenetan parte hartzen du. Horrela, Auzoko programaren barruan antolatzen dituzten saioetara joaten da eta urtebete darama euskara ikasten. “Euskara ikasten hasi naizene-

tik, gaztelania ahanzten ari zait”, dio, bi hizkuntzak tartekatuz azalpenak ematen dituen bitartean. Azkoitiko eredu oso gertutik jarraitu dute Elkar-ekinekoek Azpeitian beraien taldea abian jartzera. “Azkoitikoek asko erakutsi digute –dio Agirrek–, gure aurretik doaz. Lan asko ari dira egiten eta erakusten ari dira betiko topikoak hautsi eta posible dela lana egitea”.

Topikoak eta orokorkeriak, eta uste okerrak, hitzetik hortzera erabiltzen dira sarri kanpotarrei buruz aritzerakoan. Pertsona bakoitzak bere istorioa du, ordea, hemen zein munduko edozein txokotan. Horren erakusle dira sei lagunon kontakizunak.

Bakoitzak bere istorioa

Buba Sow 2006an iritsi zen Euskal Herrira, eta 2007an Azpeitira. “Lan-eskaintza batekin iritsi nintzen hona, Bartzelonatik. Azkoitian egiten dugu lan, Sidenorren, azpikontratatu-tako enpresa batentzat”. Fundizio lantegieta-ko mantenu lanean ari da orain, baina ofizio asko probatutakoa da. 2000. urtean iritsi zen iberiar penintsulara, Galiziako Vigoko portura, hain zuzen ere. “Itsasontzi batean egiten nuen lan. Vigora iritsi ginenean, jabeek ez zi-

guten zegokigun ordaina eman nahi izan, eta botata utzi gintuzten. Orduan hegoaldera joan nintzen, Andaluziara; Almerian, negutegietan lanean aritu nintzen”. Agiriak zuzentzea lortu zuenean joan zen Bartzelonara; autoetarako piezak egiten zituen lantegi batean eta ospitaletarako oheak-eta egiten zituen beste batean egin zuen lan. Beste lau lankide eta herrikiderekin bizi da hemen. Emaztea eta bi seme Senegalen bizi ditu. “Lehen urterro joaten nintzen hara, baina badira hiru urte ez naizela Senegalen izan. Dirua bidaltzen diet, baina...”. Sowren nahia eta helburua familia hona ekartzea da, “baina momentuz ezinezkoa zait, ekonomikoki”.

Hiru pakistandarrak zonalde berekoak dira, baina hemen ezagutu dute elkar. Sow baino gazteagoak izan arren, haiek ere urte asko daramate sorterritik urrutiti. Grezian egondakoak dira hirurak, Espainiara eta Euskal Herrira iritsi aurretik. “Grezian jakin nuen nik Espainia izeneko herrialde bat bazela”, dio Shahid Hussainek. Eta Madrilen bizi zela izan zuen Euskal Herriaren berri. 2005ean heldu zen hona. Azpeitian lau urte pasa daramatza, eta aurretik Azkoitian, Beasainen eta Andoainen egon zen. Iritsi berritan eta pape-▶

►rik gabe nola hala moldatu ondoren –“agiririk ez neukanez, lan batzuetan agindutakoa ere ez zidaten azkenean ordaindu”, dio–, Andoainen baserri batean egon zen bi urtez, morroi lanetan. Hitz onak besterik ez ditu hangoentzat, ez dauzka saltzeko “amona Pakita eta Juan”, semea. Gero Zumarragako Santa Barbaran egin zuen lan. “2009tik 2011ra urte onak izan ziren lan aldetik”, kontatzen du. Duela lau hilabetetik langabezian dago, ordea. Curriculumak banatzen ematen ditu orain egunak: “Otsailaren 25etik hona 300 bota ditut. Garai txarrak dira, ea udaberria noiz itzultzen den”.

Curriculum banaketa da Zahid Iqbalen momentuko eginkizuna ere. Hussein eta biak, beste bi herrikiderekin batera, pisukideak dira, Elizkalen. “2010ean heldu nintzen Gipuzkoara. Lazkaon bi urtez bizi izan nintzen, eta 2012tik nago Azpeitian”, azaldu du. Iqbalak ez dauka oraindik agiririk, eta Euskal Herrira iritsi zenetik lanik ezin topatuta dabilela dio. Zorte hobea izan du Saif Ullah-k. Lau urte daramatza Azkoitian eta hango familia pakistandar batentzat egiten du lan, “etxeko lanetan eta haurrak zaintzen. Bi mutiko eta neskato bat ditut nire kontura, eta orain laugarren bat ere bai, lau hilabetekoa. Zaharrena bikiak dira, 8 urtekoak; eta neskek 4 urte ditu”. Beste bi herrikiderekin bizi da, pisu batean.

Tayna de Sousa orain dela “sei-zazpi urte” iritsi zen Azpeitira. Brasil utzita, Galizia izan zuen lehen bizitokia. “Lehengusina bat nuen han bizitzen, eta hara joan nintzen. Hemen ere banuen lagun bat, euskal herritar batekin ezkondua; jatetxea zuten, eta jatetxean lan egitera etorri nintzen. Hemen ezagutu nuen nire senarra. Orain bananduta gaude”. Bi se-

DATUAK

Azpeitian bizi diren etorkinekin lotutako zenbait datu, Udalak eta Elkar-ekinek emanak.

910 atzerritar zeuden erroldatuta urte honen hasieran Azpeitian. Horietatik bederatziti besterik ez ziren 65 urtetik gorakoak. Haurrak, berriz, 143.

3 gune nagusi. Etorkinak herri osoan zehar sakabanatuta bizi dira. Hala ere, Alde Zaharra, Sanjuandegi –Salbe eta Euskal Herria– eta Landetako Arretxe kalea dira atzerritar kontzentrazio handienak dituzten hiru guneak

%40 Langabezia tasa.

Atzerritarren artean langabeziaren eragina oso da nabarmena, kopuru orokorrekin alderatuta. Bertakoena %16koa da.

merekin iritsi zen De Sousa Azpeitira, baina zaharrena Brasilera itzuli zen, “euskararekin ez zelako moldatzen. 12 urte zituen etorri ginenean, eta...”. Orain langabezian dago brasildarra, bere herrikide eta lagun Celia Mendes bezala. “Lana aurkitu beharrean gaude, berehala!”, dio Mendesekek. Bera da Azpeitian denbora gutxien daramana, urtebete; bi urteko alabarekin bizi da. Brasilen Euskal Herriko mutil bat ezagutu eta etorri zen hona, Tolosara, “ezkontzeko asmotan”; “baina azkenean beste batekin ezkondu zen”, azaldu du De Sousak. Tolosan bi urtez bizi ondoren, “Da-

nielaren aitarekin ezkondu” eta Zestoara etorri zen, eta orain Azpeitian bizi da.

Euskara ikasiko bai, baina...

Uztarrirako hitz egin duten Azpeitiko bost bizilagunek herrian gustura daudela diote, oro har. Celia Mendesekek “aukeran toki lasaigo bat” nahiago duela dio; Erdikalen bizi da eta “zarata gehiegi” somatzen duela dio, “festa guztietan hemendik pasatzen da dena. Ni baserrikoa naiz eta nahiago ditut toki lasaigoak”. Ez du baztertzeko beste bizileku bat topatzea; ahal izanez gero, Brasilera itzuli nahiko luke. Ez da iritzi berekoa Tayna de Sousa: “Azpeitia asko gustatzen zait. Hemen egotea gustatzen zait, eta jendea ere bai. Ez dut Brasilera itzultzeko asmorik”.

“Guk batik bat gazteekin dugu harremana, gure adintsukoekin”, dio Shahid Husseinek. Buba Sowk ere ez du arazorik jendearekin. “Hemengoek beti esaten duzue zeuen buruz itxiak zaretela. Baina, horrela izanda ere, ez du esan nahi zerbait txarra denik. Egia da kostatu egiten dela pertsona nolakoa den ezagutzea; baina ezagutzen dituzunean, beti agurtzen zaituzte”. Brasildarrek bai nabarmendu dutela izaera ezberdintasunaren oztopoa. “Egia da hemen jendea gu baino itxia goa dela”, dio De Sousak. “Azpeitian, Azkoitian, Tolosan... jendea berdina da alde horretatik. Konfiantza hartzen duten arte, ba...”, gehitu du Mendesekek.

Euskal Herrira iritsi ziren arte ez zekiten hemen gaztelaniaz gain beste hizkuntza bat zegoenik. Erraztasun gehiagorekin ala gutxiagorekin, denak moldatzen dira gaztelaniarekin. Euskararekin, ordea, bestelakoa da kontua, eta arrazoi bat baino gehiago ematen dute hori zergatik den azaltzeko.



IMHn, maiatzaren 24an, 11:00etan
Informazio Saioa

etortzeko deitu 943744132ra / www.imh.es



Erdi-maila

- Mekanizazioa
- Mantenu Elektromekanikoa

Goi-maila (DUALA ERE: 2. mailan))

- Fabrikazio mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Mekatronika industrialia

GRADU DUALA

- Prozesu eta Produktu Berrikuntzan Ingeniaritza

Denek diote euskaraz moldatzen ikatea gustatuko litzaiekela, baina denak datoz bat hizkuntza ikasteko dauden aukerak beraien beharrak ez dituztela asetzen esaterakoan. Tayna de Sousa eta Buba Sow euskaltegia hasi ere hasi ziren, baina... "Uste dut bitan bakarrik joan nintzela. Itzultzeko gogoak kendu zitzaidan, oso zaila zen. Interes falta izan zen. Baina berriz saiatzea nahi dut". Sowren kasuan, berriz, laneko ordutegiekin moldatu ezina izan zen arazoa.

Elkar-ekin asmoen artean dago aurten bertan Azpeitian ere Auzoko programa ezartzea: bertako euskaldunen eta bertako ez-euskaldunen arteko mintzapraktika saio irekiak, euskararen bidez jatorri ezberdineko jendea elkartuz. Horrelako saioretara joateko pronto azaldu dira denak.

Bertakoentzat hausnarketarako balio dezaketen zenbait kontu ere laga dituzte atzerri-tarrek. "Kalean ikatea zaila da –dio Sow–, hemengo jendeak ez dizulako euskaraz hitz egiten; zerbait esan behar badizute, gaztelania erabiltzen dute, gero beraien artean euskaraz egingo badute ere". "Grezian, lanean zortzi orduz ari ginen grekeraz, nagusiekin, eta lanetik kanpo ere hango lagunekin grekeraz hitz egiten genuen. Azkar ikasi genuen", baieztatu du Iqbalek. Brasildarrek, berriz, baztutan "bartzertuta" sentitzen direla diote. "Kanpotarrok gazetaren parte hartzeko interesik ez dugula esaten du jendeak, baina hori ez da horrela. Guk nahi dugu herriko gazetan parte hartzea, iraileko azokan egin genuen bezala; gertatzen dena da, gehienetan ez dakigula zer, noiz eta nola egin, kartelak eta euskaraz bakarrik jartzen dituztelako", azaldu du Mendesek. Elkarrengandik eta elkarrekin ikasi beharko.*

Ipaka Astea, ekain hasieran

Ipaka, Izarraizpeko Aniztasun Kulturalaren Astea, Azpeitian ere egingo da aurten. Iaz ospatu zuten lehen aldiz, Azkoitian, eta 2014koan bi herrien artean banatuko dituzte ekitaldiak. Ekainaren 2tik 7ra izango da. Elkar-ekin elkarteak Ipakaren antolakuntzan parte hartu du. Egitaraua nahikoa zehaztuta dute. "Jatorri ezberdineko jendea elkartuko gara kirola, elikadura, edo hizkuntza eta kultura ezberdinen inguruan. Pakistandarrek kriketa erakutsiko digute, guk hemengo herri kirolak erakutsiko dizkiegu, herri bakoitzak bere jakiak prestatu edo bere hizkuntzan poesia irakurriko du.

Azkenean, denon artean argazki erraldoi bat aterako dugu", azaldu du Imanol Agirrek. "Elkar ezagutzea da helburua, aurreiritziak kentzea, beldurrak galtzea. Aurrerantzean bide berdinetik jarraituko dugu, ekimen berriak eginez, herriko festetan aintzat hartzea polita izango litzateke".

Ipaka baino lehen, 1960ko hamarkadan Extremaduratik etorri zirenak ere gogoan izango dituzte, Sanjuandegin: Jon Maiak bere gurasoen esperientzian oinarrituta egin duen dokumentala aurkeztuko du, maiatzaren 8an, Baigera II-n.



Zahid Iqbal, Buba Sow, Saif Ullah, Shahid Hussain eta Imanol Agirre.



"Il Partigiano" azpeitiko lehen pizza artisan egilea da. Gure italiar pizza tradizionalak produktu fresko eta naturalekin eginak daude. Egunean etxean egindako masarekin, momentuan eskuz zabaldua.

ETXERA ERAMANGO DIZUGU

Telefonoa
943 08 09 13

ildefonso gurrutxaga, 12 behe



Egia gosez

Gerra Zibilean Azpeitiko errealitatea ezagutzeko akordioa egin dute Udalak eta Aranzadik. Herritarren ekarpenek pisua izango dute ikerketan.  **Monika Juaristi**

Egia da latz eta garratz”, dio esaera zaharrak. Garratza bezain beharrezkoa da, ordea, familia bateko kideentzat, herri batentzat, herrialde batentzat. Azpeitiarrek, azkenean, ezagutuko dute Gerra Zibilean udalerrian emandako errealitatea; egia latza. Apirilaren 2an Azpeitiko memoria historikoa aztertzeko akordioa sinatu zuten Azpeitiko Udalak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak. Javi Bucos (Sevilla, 1982) da ikerketaren ardura-duna eta, haren iritzian, berandu bai, baina ez da beranduegi: “Orokorrean, berandu iritsi dira ikerketak herri guztietan, baina oraindik badira testiguak eta, euren testigantzei esker, oraindik garaiz da”. Ikertzaileak dioenez, bere lanaren helburua “egia jakitea” da.

“Konplexua” da memoria historikoa aztertzea. Hasteko, informazioa bildu beharko dute. “Lehenengo lana artxibo guztietan begiratzea da: artxibo lokala, Diputaziokoa, Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentrokoa, Sabino Arana Fundaziokoa, artxibo pribatuak eta, azkenik, artxibo militarrik: besteak beste, Guadalajaran, Ferrolen eta Avilan daudenak”. Artxiboetatik ateratako datuak elkarrearen datu-basean sartuko dituzte horrela, herritarren datuak-eta bilduta, biktimen behin-behineko zerrenda osatuz.

Behin-behineko zerrendak, ordea, luzatu egiten dira. “Beti daude sorpresak. Mundu guztiak dakizkien izenekin osatzen dugu hasierako behin-behineko zerrenda, baina iker-

ketaren bidez aurkitzen dugu jende gehiago: egun familiarik ez duten biktimak, adibidez”. Duela gutxi amaitu du Bucosek Leioako memoria historiakoaren azterketa. “Leioan, hasieran, gerran izan ziren 21 lagun eta beste bi edo hiru zibil fusilaturen izenak genituen. Ikerketa amaitu dugunean, gerran izan ziren 60 biktima inguru ditugu, eta fusilatutako hamarren bat zibil”. Joera ikusita, Azpeitian ere “sorpresak” espero ditu Bucosek: “Seguru asko agertuko dira izen berriak: milizianoak, ebakuatuak eta abar”.

Ikerlariaren hitzetan, gainera, Azpeitia historikoki oso toki esanguratsua da; zehazki, Loiola. “Gudarien kuartela zegoen Loiolan. Candido Saseta egon zen han, Euskal Herriarentzat oso pertsonaia garrantzitsua dena. Horregatik, pisu historiko handia du Azpeitiak”.

Argitalpenak ere informazio iturri garrantzitsu direla azpimarratu du Bucosek: “Hainbat liburu argitaratu da testigantzeekin eta informazio baliagarriekin”. Uztarrria Komunikazio Taldeak argitaratu zuen, esaterako, Amaia Mendizabalek idatzi zuen *Azpeitiarrak Espainiako Gerran* liburua. Modu batean edo bestean, Espainiako Gerra bizi izan zuten azpeitiarren testigantzak jaso zituen han Mendizabalek: Antonio Loinaz, Maria Dolores Odrizola, Santa Larizgoitia, Ignacio Artetxe, Lurdes Alberdi, Ramon Altolagirre, Jesusa Aranguren, Jesus Urbieto eta Asentxio Zubi-

llaga herritarrek elkarrizketatu zituen, hain justu. Baliagarri izango dira, ziur, lanean bildutako pertsonaia guzti horien testigantzak. Dena dela, eta idazleak nabarmendu bezala, liburua “ez da, agian, gerra hartan eta herri honetan gertatutako guztiaren isla, zenbait jenderen testigantza falta baita”.

Bulegoa herrian

Zaila da 1936 eta 1945 urte bitartean bizi zirenen testigantzak biltzea. “Orduko kontuen testigu edo protagonista ziren asko hilda daude. Beste zenbaitek, adina edo gaixotasuna tarteko, ezin dute euren historia kontatu, eta badira ezer kontatu nahi ez dutenak ere, mingarri egiten zaielako gerrateaz hitz egitea eta nahiago izan dute aspaldiko kontu horiek ahanzteak”. 2006an idatzi zituen hitzok Amaia Mendizabalek eta, beraz, are zailagoa izango da orain, zortzi urte beranduago.

Hala ere, “beharrezkoa” eta “ezinbestekoa” da, Bucosek dioenez, herritarrek euren ekarpenak egitea. “Ikerketaren parte garrantzitsua izango da herriko edadetuen testigantzak biltzea; beharrezkoa zaigu egia jakiteko. Gertatutakoa pertsonen bidez jakitea behar dugu. Hau ez da tesi doktorala edo kontakizun soil bat gerra zibilari buruz. Lan hau pertsonala da: izena berreskuratu nahi dugu”.

Bulegoa ipiniko du herrian Aranzadik, herritarrekin elkartu eta haien ekarpenak eta testigantzak jaso ahal izateko. Ekainean



Erreketek eta soldau talde bat Loiolako basilikako eskaileretan. |||Aranzadi

|||“Ez da tesi doktora edo kontakizun soil bat, lan pertsonala da: izena berreskuratu nahi dugu”

JAVI BUCES
ikerlaría



zehir, asteko bi egunetan egongo da zabalik. “Herritarrek ekarpenak eta kontsultak egin ahal izango dituzte. Esaterako, norbait familiarako kide baten bila badabil, kontsulta bidez eta informazioa emanez, ekarpenen bat egin diezaioke gure lanari”. Oraindik ez dituzte zehaztu bulegoa zabalik egongo den egunak.

Ekimen gehiago ere antolatu dituzte herrian. Maiatzean, exhumazioaren inguruko erakusketa eta hitzaldiak eskainiko ditu Aranzadi Zientzia Elkarteak. “Aranzadik urte mordoa darama Gerra Zibilaren inguruko kontuetan lanean. Baina beti exhumazioei heldu diegu, hau da, gorputza bilatzera joan gara. Ikerketarena beste adar bat da, modu paraleloan egiten dugu”, dio adituak.

Lana “gogorra” bezain “hunkigarria” dela aitortzen du Bucések. Hasteko, bilaketa eta azterketa lana egin behar dute. “Ikerketari ekin eta bigarren asterako 500 paperetik gora genituen mahai gainean. Guzti horiek aztertzea lan gogorra da”. Lanaren alde humanoari ekiten diote gero. “Testigantzak jasotzeko elkarrizketak egitea ez da lan gogorra; lan emotiboa da”. Duela horrenbeste urteko kontuak mugitzeak familien mina nolabait arintzen duen ustekoa da Sevillakoa. “Familiek biktimak ahaztu ditugun sentazioa izaten dute askotan. Orain, norbaitek haietaz galdetzean eta interesa erakustean, hunkitu egiten dira”.

Hiru oinarrietan lehen

Bucések argi ikusten du zein den bere egitekoa, eta non dagoen lanaren bukaera. “Gure helmuga da egia jakitea. Nazio Batuek esaten dute hiru oinarriak direla egia, justizia eta erreparazioa. Gure lana lehenengo hori betetzea da. Azpeitiar biktima guztien izenak jaso behar ditugu jakiteko zein ziren eta zer gertatu zen eurekin, eta familiei eta herriari egia ezagutarazi behar diegu. Hori lortzean bukatuko dugu”. Lan hori abendurako bukatzea aurreikusi dute Udalak eta Aranzadik. Gero, liburu argitaratuko dute. 2015. urte hasieran kaleratzea dute asmoa.

Liburuaz gain, ikerketan bildutako informazio guzti-guztia eskuragarri izango da. “Guk jasotako informazio guzti-guztia udaletxera eramango dugu: dokumentuak, datuak, argazkiak, testigantzak bideoan grabatuta... dena. Etorkizunean bestelako ikerketa edo kontsultak egin nahi izanez gero, hor egongo da dokumentazio osoa”.

Berandu bai, baina beranduegi ez. Aurki jakingo dute azpeitiarrek herrian Gerra Zibilean jazotakoaren egia latza eta garratza.✘

HAU HOLAXEENK

BARATZA EKOLOGIKIEN KONTU HALI
OSO ONDO ZIOK BAÑO ARALUETAN
JARTZEIK GERO EZINDALA EZER SALDU

ESAN ENIAN BAI HORREATIK
JARRIBETXIAT NIK HEMEN
INDAKO ETXIEK ALKILERRINI!





ETORKIZUNERAKO JANTZITA

BATXILERGOAN

giza adimen heldutasunean eta lan munduan beharko dituzun kompetentziak garatzea dugu helburu.

ATE IREKIAK:

Maiatzak 7,
17:00etatik 19:00etara

► Zer egingo duzu ikastolan?

- Etorkizuneko zure ibilbidea planifikatzen ikasi.
- Zure iritzia defendatzen ikasi.
- Ikas arloen ezagueretan sakondu.
- Besteek laguntzen eta benetako elkarlana egiten ikasi.
- Sormena lantzen ikasi.
- Herri ekimenetan parte hartzen ikasi.
- IKTen laguntzarekin hizkuntza ezberdinak landu.

► Eskaintza akademikoa

- Zientziak eta teknologiko batxilergoa.
- Giza eta gizarte zientzietako batxilergoa.

► Zerbitzuak

- Jangela eta garraio zerbitzuak.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: udalekuak, tailerrak eta ikastaroak.
- Kirol eta kultur elkarteak.

► Aipatzekoak

- Ikasketa maila guztietarako atsek zabaiak izango dituzu.
- Ordutegijarratua (08:30etatik 14:50era), astelehenetan izan ezik.

Batxilergoko matrikulazio epea:
Maiatzak 5etik 15era

Informa zaitez:

943 15 12 46

www.azpeitikoikastola.net

azpeitiko
ikastola

ikasberri koop.e.



HEZKUNTZA



JOXE MARI IPARRAGIRRE BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA

Nekoalde 16 - 20700 URRETXU (Gipuzkoa)

Tel./Faxa: 943721403 / 943721413

www.jmiparragirre.net - 012286aa@hezkuntza.net

ERIZAIN LAGUNTZAILEA

Erdi Mailako Heziketa Zikloa. Osasun familia.

A-D EREDUAK


LANBIDE ETORKIZUNAK:

- Ospitaleko erizain laguntzailea.
- Zaharren egoitzetan.
- Eguneko zentruetan.
- Lehen artapenetako laguntzailea.
- Kontsulta pribatuetan.
- Hortz-kliniketan laguntzailea.
- Gaixoen zaintza.



AURREMATRIKULA: Maiatzaren 27tik ekainaren 7ra (biak barne)
MATRIKULA EGITEKO EPEA: Uztailaren 9tik 16ra (biak barne)

Mantangorria, bueltan

Maiatzeko azken astearekin jaitsiko da Mantangorri Sanjuandegira, festa giroa barreiatzera. Astebeterako egitaraua prestatu du Sanjuandegiko Festa Batzordeak egun horietarako.  **Julene Frantzesena**

Uteroko legez, maiatzaren bukaerarekin festa giroa ekarriko du Amona Mantangorrik Sanjuandegira. Maiatzaren 24an Umeen Egunarekin hasiko dira auzoko jaiak, eta ekainaren 1a bitartean ez da ekimenik faltako.

Hilaren 27tik 29ra beroketa lanak egiteko aukera izango da bertso-afariarekin, mus txapelketarekin zein mozorro gauarekin, eta ostiralean hasiko dira festak, Mantangorriren jaitsierarekin batera.

Gazte Eguna izango da, hain zuzen, ostiralean eta, besteak beste, Iluntze auzo-lokalearen irekiera, gazte afaria, saloiko dantzen emanaldia eta kontzertuak antolatu dituzte.

Zapatuan Auzo Eguna ospatuko dute goizean hasita. Triki-pintxo-poteoa, musika bandaren

III DATUAK

III **Zer.** Sanjuandegiko festak. III **Egunak.** Maiatzaren 24tik ekainaren 1era. III **Tokia.** Sanjuandegi auzoa. III **Antolatzailea.** XJ Festa Batzordea.

kontzertua, auzo bazkaria, trikiti txapelketa, elektrotxaranga, parrillada eta Kometa eta Kauta taldeen kontzertuak izango dira, tartean.

Igandean bukatuko dira festak, baina Mantangorri agur esan bitartean izango da zer egina auzoan. Hala nola, dantzari txikiak, haurrentzako zezen txikiak eta herri kirolak izango dira egun osoan zehar.

III SANJUANDEGIKO FESTAK

7 eguneko egitaraua. Hilaren 24tik ekainaren 1era bitartean, zazpi eguneko festak izango dira Sanjuandegin.

2. trikiti txapelketa. Aurten ere egingo dute Trikiti Txapelketa. Iaz, Iñigo Dominguez eta Itsaso Gurrutxaga nagusitu ziren.



Iazko Sanjuandegiko festetako triki-poteoko irudi bat. III Sanjuandegiko Festa Batzordea

III BESTERIK

1 Emakumeen selekzioa, bueltan Urteetan neurketarik jokatu gabe egon ostean, futboleko emakumeen Euskal selekzioak lagunarteko partida jokatuko du Irlandaren kontra.

III **Eguna.** Maiatzak 10 (zapatua).

III **Ordua.** 18:00 III **Tokia.** Garmendipe futbol zelaian.

2 Elkartasuna eta festa

Azpeitiko preso, iheslari eta deportatuen aldeko Elkartasun Egunerako egitarau oparora antolatu dute. Besteak beste, krosa, herri kirolak, bazkaria, manifestazioa eta kontzertuak izango dira.

III **Eguna.** Maiatzak 17 (zapatua).

III **Antolatzailea.** Tantz tanta.

3 Jon Sarasua aho bilorik gabe

Aho bizarrik gabe solasaldi zikloko zortzigarren gonbidatua izango da Jon Sarasua.

Kazetaritza ikasitakoa da bertsolari ohia, eta Mondragon Unibertsitateko irakaslea da egun, Huhezi fakultatean. Gonbidatuari aurrez galderak bidaltzeko aukera dago, ahobizarrikgabe@gmail.com helbidera idatzita.

III **Eguna.** Hilak 28 (asteazkena).

III **Ordua.** 19:00 III **Tokia.**

Sanagustin Kulturgunea.

III **Antolatzailea.** Sanagustin Kulturgunea, Uztarria Komunikazio Taldea, Urola Kostako Hitza eta Erlo Telebista.*

III Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: uztarria.com/agenda

**BADIRA ATE BAT IREKITZEAN
HASTEN DIREN PROIEKTUAK**

“**Unibertsitate
honetan ekintzaile
izateko birusa sartu
didate.**

Mikel Gonzalez,
Enpresa Administrazio eta
Zuzendaritza, 2. maila.



PREST



**MONDRAGON
UNIBERTSITATEA**

ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ARRASATE · MAIATZAK 10
Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

DONOSTIALDEA · MAIATZAK 17

Larunbata, 10:30 / Orona Fundazioa

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

OÑATI · MAIATZAK 10
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

BILBAO · MAIATZAK 17

Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZA · MAIATZAK 10
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

ARETXABALETA · MAIATZAK 10

Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA - Basque Culinary Center

DONOSTIA · MAIATZAK 24
Larunbata, 10:30 / Auditoriuma

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



HITZ GEZIDUNAK



Egilea:
Luma

	Ingeniariak	▼	Kirolari mota	▼	Ospetsua	▼	Ospetsua	▼	Nahasirik, nahaspilaturik
	Prestatua		Har ezazu!		Pinu mota		Akatsa		
	▶		▼		▼		▼		▼
	* Izena	▶							
	Antxumea								
Ez kontsonanteak	▼	Hegaldatua	▶	▼					
Jaunartze		Talde							
▶		▼				Ez on	▶		
						Azaldu, agertu			
Ume	▶				Zelaia	▶		Bokala	▶
* Deitura					Kontso. bikoitza			Garraio mota	
▶					▼			Talioaren ikurra	▶
								Bokalik gabeko bota	▼
Bokalik gabeko lata	▶				Metal distiratsu	▶		Ingelesez, gaizto	▶
Ez geza					Ingelesez, da			Ez eme	▼
▶				▼					
					Emakume izena	▶			
					Bokala				
Akatsa, hozka	▶				▼	Irdioaren ikurra	▶		Kasik

* Azpeitiar liburuzain ohia

SUDOKUA

8			7	6	9			
				2		9		
	6			8	1			
2		9				3	6	
		3				2		
	1	8				5		7
			2	7			5	
		4		1				
			6	9	8			4

ANTONIO RAFANIELLO
HORTZ KLINIKA

Titaniozko inplanteak: 295 € tik hasita

- Aseguruekin lan egiten dugu
- Finantziario pertsonalizatua

www.antoniorafaniello.com
Enparan kalea, 8-1. Azpeitia 943 816736

|||UZTARRIA SUKALDEAN. HIL HONETAN...||||||||||||

**BASURDE GISATUA, JAI-ALAIN
OSAGIAK (4 lagunentzako)**

- 2 kilo basurde haragi
- Litro erdi oliba olio
- 4 tipula
- Porru bat
- 2 azenario
- Litro erdi ardo beltz
- Gatza
- Piperbeltza
- Koñak kopa bat



NOLA EGIN

Basurde haragia zati handietan ebaki eta gatza eta piperbeltza bota. Zartaginean gorritu ondoren, haragia eltze batera pasatu, erabili dugun olioaren parte batekin, egosten joan dadin.

Zartaginean gelditu den olioan, berriz, tipula, porrua eta azenarioa jarriko ditugu egiten, zati trikitan. Barazkiak gorritu ahala, koñaka gehituko diegu, flanbeatzeko; ardo beltza erantsiko dugu ondoren, eta loditzen utzi.

Basurdea egositakoan, haragia samurtuta dela, loditzen utzi ditugun barazkiei salda botako diegu, eta hamar minutuko irakinaldia eman. Jarraian, turmixarekin xehetu eta txinotik pasatuko ditugu, saltsa egiteko. Azkenik, basurdea saltsatan jarri eta gatz puntuari neurria hartuko diegu.

Aurkezpenerako hainbat aukera dago. Kasu honetan, patata-purea, sagar gorrien purea eta aranpasa erabili ditugu, plater lau zabal batean. On egin!



|||LEHIAKETAN ERANTZUTTEKO EPEA. Maiatzak 26 (astelehena) |||NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia edo uztarriasukaldean@gmail.com ||| IRABAZLEARI SARIA. Jai-Alai jatetxean bi lagunentzat afaria edo bazkaria |||PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarrria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da
|||BIDALI ZURE GUSTUKO ERREZETA, PLATERAREKIN AGERTZEN ZAREN ARGAZKI ETA GUZTI. EZ AHAZTU ZURE IZEN-ABIZENAK ETA TELEFONO ZENBAKIA JARTZEA!

|||SOLUZIOAK|||
HITZ GEZIDUNAK

I	A	•	R	•	A	S	K	•	
E	X	T	A	R	I	A	Z	V	G
D	A	B	E	R	R	U	T	L	•
T	L	•	A	G	A	R	A	L	G
A	•	A	U	A	L	E	M	K	•
A	R	X	T	•	O	N	I	O	K
A		A	I	R	E	A	•	B	•
I		A	R	E	X	•	J	O	•
A		A	T	O	L	A	N	T	A
•	B	•	F	•	B	•	I	•	

SUDOKUA


5	2	1	6	9	8	7	3	4
7	8	4	5	1	3	6	9	2
3	9	6	2	7	4	8	5	1
6	1	8	9	3	2	5	4	7
4	7	3	8	5	6	2	1	9
2	5	9	1	4	7	3	6	8
9	6	2	3	8	1	4	7	5
1	3	7	4	2	5	9	8	6
8	4	5	7	6	9	1	2	3

|||UZTARRIAREN APIRILEKO LEHIAKETA|||
IRABAZLEA



Alberto Frantzesena
Uztarriko bazkidea da 'Uztarrria sukaldean' lehiaketaren 160. irabazlea. Paella beltza prestatu du, lehiaketan parte hartzeko.
Pastorkua jatetxean bi lagunentzako otordua irabazi du. Argazkian irabazlea, prestatu duen platerarekin.

Beste jauzi bat

2012an berritu zuen Uztarriak webgunea, baina informazioaren eta zerbitzuen eguneraketa ez zen hor gelditu. Gailu mugikorretarako bertsioa horren adibide da, baina ez bakarra.  Uztarria

Uztarria Komunikazio Taldeak webgunea mugikorretarako egokitu du, sakelakotik edo tabletetik sartzen direnek Azpeitiko berriak erosotasunez irakurri ditzaten.

Interneterako sarbidea duten gailuen erabilera aldatzen ari da. Uztarria.com-eko datuak, behintzat, esanguratsuak dira: 2012an Uztarriaren webguneko bisita guztien %8,88 egin ziren mugikorretatik eta %2,85 tabletetik; ia, bisiten %15,73 egin ziren mugikorretatik eta %6,18 tabletetik; aurtun goranzko joera izan dute datuek: urtea hasi denetik hona webguneak izan dituen bisita guztien %19,97 egin dira mugikorretatik, eta %7,77 tabletetik.

||| Eguraldiaren iragarpena eta guardiako farmaziak ere, Uztarria.com-en



Webgunera mugikorretik edo tabletetik sartzen diren irakurleek *Aktualitatea* atala izango dute pantaila nagusian. Gainerako atalak –*Komunitatea*, *Gida/telefonoak*, *Agenda...*–, Uztarria.com logoaren ezkerretara dagoen menuan ikusi ahal izango dira.

Berrikuntza gehiago

Mugikorretarako moldaketak ez ezik, eguraldiaren iragarpena eta guardiako farmazien inguruko informazioa ere txertatu dugu Uztarria.com-en.

Bestalde, *Komunitatea*-n kideek egindako ekarpenetan ezingo dute iruzkinik egin anonimoez. Izen-abizenekin sinatzen duten kideen parte-hartzea sustatzeko hartu du erabakia Uztarriak

1786

Bandera berria. Herriko diruzainari herriaren bandera berria egitea agindu zioten, momentukoa erabat apurturik zegoelako.


1871

Alkohola saltzea debeku. Herriari, pattarra, likoreak eta izpiritu edariez gain, Nuarben ardoa eskusiboki saltzea debekatu zion Diputazioak, gutunez.

1920

Loiolako Inazio patroia.

Zumaian bildu ziren Gipuzkoako Batzar Nagusiak eta, bilkura hartan, Loiolako Inazio lurraldeko zaindaritzat hartzea erabaki zuten.

 **Iturria:** *Azpeitiko efemerideak.* Herria historian zehar liburua.
 ||| **Egilea:** Imanol Elias Odriozola.
 ||| **Argitaratzailea:** Uztarria Kultur Koordinakundea.★

HERRITARREN
ESKUBIDEEI BAI

EKITALDIA

AZPEITIA Maiatzak 12
19:00etan Frontoi Txikian

TROIKAREN
EUROPARI EZ



ehbildu
herrikerabaki

Bizkarrezurra

Arrazoi asko ditugu arrautzak jateko. Batetik, dituzten proteinen kalitatea oso ona delako, eta bi-tamina (A, E, azido folikoa eta B2, B12 eta D) eta mineral (fosforo, burdina, zinka...) ugari dituelako. Gantzak gorringoan daude eta gehienak saturatu-gabeak dira.

Arrautzak badu kolesterola, bai. Baina ikerketa zorrotz batek frogatu zuenez –1997. urteko apirilean argitaratu zuten–, arrautza jateak ez du nabarmen igotzen odoleko kolesterola. Beraz, urte askotan sinistu izan dugun uste faltsu hori baztertu eta arrautzari gure dietan lekua egin diezaiokegu, lasai-lasai.

Oso ohikoa da arrautzarekiko alergia izatea ere, batez ere hurrek; zuringoan agertzen diren zenbait substantziek eragiten dute alergia mota hori. Horrelakoetan, arrautzarik edota arrautza osagaien artean duten janariak ez jatea da arazoa saihesteko modu bakarra.

Begetarianoak diren pertsonentzak, berriz, oso produktu interesgarria da arrautza, B12 bitamina duelako. Produktu begetaletan agertu ohi ez den osagaia da hori, eta barazki-jaleen dieta osatzeko aproposa.

Zer izan zen lehenago, arrautza edo oiloa?*



aitziber aizpuru!!!

OLAIA ARKAUZ makillatzaile profesionala



1. Modako kolorea?

Nude koloreko ezpainenakoa eta begietako itzal suabeak.

2. Lanaren onena?

Egunero desberdina dela.

3. Txarraena?

Ordutegi finkorik ez, eta kaleko grabaketak neguan.

4. Zorrotzak al gara?

Berdin zaigu edo luparekin begiratzen dugu.

5. Lan gehiena noiz?

EITBn abuztutik maiatzera.

6. Ohiko eskakizuna?

'Natural' makillatzea; makillatu bai, baina antzeman gabe.

7. Anekdotarik?

Aktore batek ispilua eskatu zuen eta grabaketan sartu nintzen banuela esanaz.

8. Zein pertsonaia apaindu dituzu?

Miguel Bose, Chenoa, Boris Izagirre, Estopa...*

Julene Frantzesena

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Lamaidiak
943 15 16 40

ostadar optika
OPTIKAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Arretxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOTIA

La **Primavera** pizzeria

943 083 460

www.laprimaverapizzeria.com

OLAIA ARKAUZ
makillatzailea

Automakillaje klaseak eta ospakizun guztietarako makillajea etxe etxe

Tel. 619 311 535
olaiarkauz@gmail.com

arte eta diseinu ikastegia

di

Dibujo eta eskulanak (haurrak) 17:30/19:00

Pintura 17:30/19:00

Talla 19:30/21:00

Jose Arretxe kalea, 3
669 414 025 - 943812808
matrikula urte guztian zabalik

Iuba
aholkularitza

Aholkularitza
- fiskala
- laborala
- kontablea

Gestori lanak
Finanzen administrazioa
Gestio inmobiliaria

Tel. 943 157 325 Fax. 943 157 273
Euzkaleko kalea, 45 • 48901 Leizorako

KIMU BATEKO EKOLOGIKOEN TXOKOA

HURBILDU ETA EZAGUTU !!

natural 100% EKOLOGIKOEN TXOKOA 100% natural


Kiuru bar

Pantaila itzaltzean

Geldirik egoten ez den horietakoa da. Lan ugari egin du telebistan nahiz zineman, eta monologoak ere egiten ditu. Orain, denda baten jabe ere bada. 📌 Julene Frantzesena

Aktore, gidoilari nahiz monologo-egilea. Hori guztia gutxi ez, eta ETB1eko *Nago* saioko aurkezle ere bada, orain, Nagore Aranburu (Azpeitia, 1976). Aipatutako moduan, lan ugari aritutakoa da, eta aldaketak ez zaizkiola “gogorak” egiten dio: “Gogorra ezegonkortasuna da. Hilabete barru lana izango duzun edo ez ez jakin eta ondo eramatea zaila da. Aktoreoi zain ego-teagatik ordaintzen digutela esaten da... eta, beraz, pazientzia beharrezkoa da”.

Egun gidatzen duen saioa “desberdina”, baina aldi berean “esperiencia oso ona” dela dio: “Ni normalean fikzioan aritzen naiz, eta *Nago* saioak erreallitatearen hainbat aurpegi ezagutzeko aukera eman dit. Hala eta guztiz, nire eginbeharrak aktore lanetik gehiago du kazetari lanetik baino”. Gainera, orain dela hilabete batzuk estreinatu zuen *Potologoak* bakarriketa-saioa. *Bodologoak* arrakastatsu haren ondoren, Egoitz Lasarekin eta Mikel Pagadizabalekin batera ari da berriro taula ganean lanean; antzokiz antzoki dabilta, batera eta bestera. Telebista, antzerkia eta, gainera, duen agenda borobiltzeko, zinema: *Loreak errepedean* filmean egin



zuen lan 2013an, eta laster estreinatzeakoa da Jon Garaño eta Jose Mari Goenagak zuzendutako lana.

Antxietako harrobia

Euri asko egin du aktore lanetan hasi zenetik. Euskal Telebistako *Jaun eta jabe* telesailan egin zuen aurreneko agerraldia Nagore Aranburuk, Klarita zerbitzariari papera betez, eta lanerako deitu zioten egun hura “gaur ballitz bezala” gogoratzen du: “Ilusio ikaragarria egin zidan”.

Hastapenak, ordea, jaioterrian egin zituen, Antxieta Antzerki Taldean, besteak beste aita Joxerekin batera.

Ikastolako garai hartan antzerkia “jolas” zela eta gerora aktore izango zenik ez zuela pentsatu oroitzen du. Gero, ikastolako garaia bukatutakoan, Donostiako antzerki eskolan egin zituen bi urte, eta han ere “lagun onak egin” zituela dio.

21 urterekin Donostiarra

Duela hamazazpi urte joan zen Donostiarra, eta hango Gros auzoan bizi da egun. Lau urteko ume baten ama ere bada azpeitiarra.

Aranburuk dio “gustura” bizi dela Grosen, “herri bat bezalakoa delako” hura. Hala ere, bere herria, Azpeitia, faltan botatzen duela aitortzen du: “Etxekoak

||| MOTZEAN |||

FILM BAT?

'Invasiones Barbaras'.

AKTORE BAT?

Sean Penn.

AKTORE EZ BAZINA?

Auskalo!

AMETS BAT?

Bidaia luze bat.

EGUNA POZTEKO?

Maite ditunanen irribarreak.

ETA, ILUNDU?

Kezkek.

EDARI BAT?

Garagardoa.

GUSTUKO JAKIA?

Arrautza frijitua urdaiazpikoa-
rekin.

GORROTO DUZUNA?

Patata porea.

BELDURRIK?

Eguraldi oso txarra egiten
duen egunei.

ISPILUAN BEGIRATU- TA, ZER?

Zimur gehiago.



1. Aranburu umetan, Akamendi baserrian, Flap txakurrarekin. **2.** Antxieta antzerki taldean egin zituen hastapenak. Eskuinetik aurrena, obra batean. **3.** Aranburu, Egoitz Lasarekin eta Mikel Pagadizabalekin.



Badu izenkidea

||| Interneteko bilatzailean bere izena jarrita lehia gogorra dauka azpeitiarrak. Izan ere, bere izen-abizen berdinak dituen Xabi Alonso futbolariaren emaztearen inguruko kontuak ere agertzen dira. Umorez hartzen du kontua: "Horixe dauka Xabi Alonsoren emaztearen izen bera edukitzeak".

ikustera joaten naiz, gehienetan, eta noizean behin parrandaren bat egitera ere bai. Asko akordatzten naiz Azpeitiarekin. Etxekoak han ditut, eta umetako oroitzapen guztiak ere bai. Akordatzten naiz nola ibiltzen ginen egunero-egunero, arratsalde osoa, ikastola atarian jolasean".


Zaletasun ugari

Film ugarietan egin du lan azpeitiar aktoreak, eta ikusle moduan zinemara joatea "plan bikaina" iruditzen zaio: "Astegun arratsalde batean zinemara joatea asko gustatzen zait". Horrez gain, kirola ere atsegin du, igeriketa batez ere, baina "orain oso gutxi" egiten du. Igeriketa askorik ez, baina eguraldi ona egiten duenean "paseo luzeak" egitea gustatzen zaio Aranbururi, eta Donostian badu horretarako leku aproposik.

"Musika entzutea gustuko dut. Jack Johnson, esaterako, askotan entzuten dut. Eskulanak ere egiten ditut. Besteak beste, neure etxeko gauzak aldatzea eta moldatzea ere badago nire afizioen artean", dio.

Merkatari ere bai

Duela aste gutxi zabaldu zuen arropa denda, Txantxo, Grosen. Dendaren irekierarekin eta *Nago* saioaren grabazioekin nahikoa lan du azpeitiarrak egunotan.*



Elizaran
Ikastexea

Kanpandegi 12,
20003 Donostia
informacion@elizaran.com

Aurrematrikula irekita

HEZIKETA ZIKLOAK

maiatzak 27 - ekainak 6

ZATUZ MATRIKULATZERA!

ELIZARAN IKASTEXEA GOBIERNO VASCO

943 42 24 27

www.elizaran.com

Erdi-mailako Zikloa
Administrazio Kudeaketako Teknikaria



IKASLEEN KUDEAKETAKO ENPRESA ERREALA

Berrikuntza eta sormen handiko proiektu bat da, ikasleen gaitasunak sortu, handitu eta sustatzeko helburuekin.

Erdi-mailako Zikloa
Merkataritza eta Marketin teknikaria



IKASLEEK MERKATURATZEN DUTEN ENPRESA ERREALA

Ikasgeletan eskola-enpresak sortzearen inguruan garatzen den hezkuntza programa bat da.

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	083780
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	0254 00
Anbulator. larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	8144 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	8900 17
Azpeitian Zer?	080688
Erla Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemaileak)	687 60 50 06
DV (berriemaileak)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00
EAJ	81 55 70
Sortu	15 72 00
EA	81 00 11

FARMAZIAK (MAIATZA)

EGUNEZ

1-6-12-17-18-23-27-29	2-8-14-20	3-4-9-15-21-30
Beristain (Azpeitia).	Eizagirre (Azpeitia).	Jacome (Azpeitia).
943 811949	943 811274	943 080258

GAUEZ

1-12-17-18-27-29	2-14	3-4-15-30	5-10-11-23
Beristain (Azpeitia).	Eizagirre (Azpeitia).	Jacome (Azpeitia).	Ruiz (Azkoitia).
943 811949	943 811274	943 080258	943 851966

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Martxoaren 26an izango dute hitzordua, 17:00etatik 21:00etara, anbulatorioan.

Aralar	647 42 59 95
Hamaikabat	15 72 00

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	8165 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	8163 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28
Uztaro	81 31 90

BESTERIK

Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi	943 08 06 88

ORDUTEGIAK

UDALETXEA || Asteguna: 08:30-14:00 || Larunbata: 09:00-12:30 **UDALTZAINGOIA** || Egun osoz irekita egoten da **ANBULATEGIA** || Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** || Astelehena: 14:00-21:00 || Beste astegunak: 07:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 || Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 || Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita **KIROLDEGIA** || Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **UDAL LIBURUTEGIA** || Astegunak: 09:30-13:00, 16:00-20:00 || Larunbata: 09:30-13:00 || Udan, Gabonetan: 08:30-14:00 **ZAPO TXOKO** || Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 || Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



ORIENTAZIO ZENTROA.

Sindikatu Zaharreko hirugarren solairuan dago Enplegu Orientazio zentroa. Banakako orientazioaz gain, lan-eskaintza aukeren eta ikastaroen inguruko informazioa ematen dute.

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 27 18
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

|| autobusen ordutegi osoa:

www.uztarria.com/azpeitia/
autobusak

5-10-11-16-22-26-31	7-13-19-24-25-28
Aranburu (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).
943 811350	943 815974

1-12-17-18-27-29	2-14	3-4-15-30	5-10-11-23	6-7-19-24-25	8-20-21	9-22	13-28	16-26-31
Beristain (Azpeitia).	Eizagirre (Azpeitia).	Jacome (Azpeitia).	Ruiz (Azkoitia).	Jaen (Azkoitia).	Azpiazu (Azkoitia).	Gisasola (Azkoitia).	Alberdi (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).
943 811949	943 811274	943 080258	943 851966	943 850660	943 852989	943 851235	943 815974	943 811350

MADDI MENDIZABAL

hegazkineko laguntzailea

“segurtasuna bermatzeko gauden gu hor”

Urtebete darama lanean. Orain arte Loiotik abiatuta aritu izan da, baina laster Erroman izango du basea. ✉ **Mailo Oiarzabal**

Zer ikasi behar da azafata bezala aritzeko?

Turismo ikasi ninan, baina ez zeukan zerikusirik. Lau hilabeteko ikastaroa egin ninan Bilbon. Hortik bideratzen haute, orientatzaile baten bidez, konpainietara. Zorte handia izan ninan: ikastaroa bukatu, Vueling-era eskaera bidali eta segituen hartu ninditenan. Negua hunan eta, hegaldi gutxiago zituztenez, sei hilabete egon nindunan hasteko zai.

Txikitatik al datorkin lanbide honetarako joera, ala geroko kontua izan dun?

Batxilergoa bukatu eta Ingalaterrara joan nindunan bizitzera. Hango nire nagusiaren emaztea azafata hunan eta hark kontaktatu zutenak entzunez, asko gustatu zitzaidan. Ez naun batere errutina zalea eta niretzako neurri-neurrikoa iruditzen zitzaidan.

Bidaiatzea, leku berriak ezagutzea... horiekin lotzen dun zuen lana, kanpotik ikusita. Barrutik, zer nabarmenduko hunake?

Jendeak gure lanbidea glamourrarekin lotzen din, baina baita zera ere, horretatik ez

din ezer. Gu segurtasuna bermatzeko gauden hor, gainerako guztia bigarren mailan zagon; abioiak ezin ditun gu gabe hegatu. Leku berriak ezagutzearena, berriz, ibilbide luzeak egin ezkerok aukeraren bat izan dezaken. Gu, adibidez, normalean ez gaitun abioitik ateratzen.

Egun berean zenbat hegaldi egin ditzakezue?

Legez, gehienez hamabi orduko lanaldia egin zezakenagu. Ordu horien barruan, hegaldien distantziaren arabera aldatzen dun kopurua, baina normalena egun batean lau hegaldi egitea izan ohi dun. Lanaldiko sei hegaldi baino gehiago ezin ditinagu egin.

Nolakoa dun hire lan egun bat?

Lehen hegaldia baino berrogei minutu lehenago iristen naun. Lau laguntzaile izaten gaitun, bakoitzak postu bat izaten dinagu abioi barruan, baina ez beti postu bera. Orduan, egunero erreparatu behar izaten dinagu jardunbide eta segurtasun protokoloa. Hegaldian bertan, normalean lan gutxi izaten dinagu. Jendeak ikusten duen horixe eta, noski, adi egotea.*



1

1. Mendizabal abioian, bere postuan eserita.
2. Loiuako aireportuan. 3. Abioiko kabinan, pilotuaren tokian eserita.



2



3

Javier Arzuaga, Che Guevara

Egun batean, eskutitza jaso nuen. Urrutitik zetorren, herritik. Aita hilobi ertzean arimak egiten ari omen zen, hobe nuela azkar ibili bizirik ikusi nahi banuen. Nik ez nuen Kuba utzi nahi. Nagusiaren iritiz, joan egin behar nuen, etxekoen ondoan egon 'zaharrari' garaia iristen zitzaionean. Joan egingo nintzela erabaki genuen, baina itzulerako atek zabalik utzi. Bidaia harexek urrutiratu ninduen Kubatik betiko, harexek emango zidan Che Guevararekin azkeneko aldiz hitz egiteko aukera. (...)

Oso argi eta berritsu hartu ninduen. Bisitarren arrazoa azaldu nionean, iraultzaile gogorrak, legea zorrotz bete behar zuenak, tatxarrik gabeko justiziaren zaleak, zigor eredugarriaren aldekoak, galdetu zidan: 'Eta zenbat diru lapurtu nahiko zenioke gobernuari?'. 'Egia esan, lapurtu, jainkoaren izenean!', lapurtu, ezta xemeikorik ere. Eskatu, bai, legeak esaten duen hirurehun pesoak eta, azpitik, gobernuak azpikorik onartzen badit, beste hainbeste'. 'Eskura al dituzu bostehun pesoak? Horraino onartuko dizut'. 'Aldean daramatzat'. 'Emazkidazu pesoak, eta bostehun dolar emango dizkizut nik'. 'Eta ez al nauzu kartzelara sartuko zu erosten saiatzeagatik?'. 'Hori egin beharko nuke, ezta? Zuk zeuk esan duzu... baina horrela ikusiko duzu iraultzak nolako bihotzarekin lan egiten duen'.

Haren osasunaren gainean hitz egin genuen, Kubara itzultzeko asmoa nuela, iraultzaren norabidea gustatzen zitzaidala bai eta ez, berari bezalaxe, gauza batzuk gustatzen zitzaizkiola eta beste batzuk ez.

Galdera

Jaikitzen hasi nintzenean bostekoa eman eta agurtzeko, galdera egin zidan, galdera bat, egin zidanetik berrogeita sei urte igaro direnean, eta Boliviatik abentura zoritxarreko hartan hil zutenetik hogeita hamahiru urte igaro direnean, oraindik erre egiten didana. 'Nola definitu, zein izen eman elkar ezagutu dugu-




■■■■■■■■■■miel a. elustondo■■■■■■■■■■

■■■'Nola definitu, zein izen eman elkar ezagutu dugunetik zuk eta biok izan dugun harremanari?'

netik zuk eta biok izan dugun harremanari?'. Begira geratu nintzaion, guztiz harrituta. Ez nuen berehala horrelakorik pentsatuko. 'Adiskidetasuna, esango zenuke?'. Nire erantzunaren zain egon zen, begiak –orrazak bezain zorrotzak–, nireetan tinkatuta. 'Nik esango nuke adiskidetasun moduko bat izan dela, bide horretan zela, baina ez nuke esango adiskidetasuna guztiz gauzatu denik'. 'Egia –esan zuen Chek–, ez gara adiskide izan, zuk zeure espaloira eraman nahi ninduzun, baina porrot egin zenuen. Nik ere neure aldera ekarri nahi zintudan, baina porrot egin nuen. Hurrena bata bestearen aurrean gertatzen garenean ez dugu oraingo maskararik ibiliko, eta elkarren etsai izango gara'. Hotzikara izan nuen burutik oinetaraino. Erantzun egin behar nion, baina ez nekien zer esan. Elkarri begira segitu genuen. Zin egingo nuke ez genuela etsai begirasunik. Elkarri bostekoa eman eta bulegotik irten nintzen. 'Ondo ibili', esan zidan. 'Zorte on', erantzun nion".

(Javier Arzuaga, Che Guevararen kapilauaren *La galera de la muerte* liburutik).✱



landeta
brikodenda



Landeta Hiribidea, 8 - AZPEITIA
tel. 943 81 25 66 - mug. 607 75 88 01 - landetabrikodenda@hotmail.com
www.landetabrikodenda.com

Softekin
INFORMATIKA


ORDENAGAILUEN SALMENTA
MOTA GUZTIETAKO ORDENAGAILUEN KONPONKETAK



GEURE HIZKUNTZAN LAN EGITEKO,
NEURRIRA EGINDAKO
EUSKARAZKO PROGRAMAK DITUGU
(Autonomo, enpresa txiki, denda,
taberna, jatetxe, akademientzat...)

Iberotarren plaza 8, behea 20730 Azpeitia Tel.943 81 51 51

www.softekin.com



Santi Lazkano Kirolak

Jose Artetxe 1
Tel/Fax: 943 81 16 50



horzkari
hortz osasun klinika

Dr. Karlos Pena Leiras
Kol.zbk. 20000643



Irribarre perfektua

**Inplanteak eta hortz finkoak
egun bakar batean!**

www.grupohorzkari.com

Iberotarren enparantza, 4 behea. AZPEITIA. Tlf :943815052

Garmendi otaola, 5. BEASAIN. Tlf: 943161018